

2005eko urtarrilaren 5a • XXVI. urtea



Mirentxu Goienetxe
doluminaz solasean

03

Dolumina bizi dutenak laguntzeko taldea osatzeko asmoa dago eskualdean. Mirentxu Goienetxek dioenez, «bakoitzak bere moduan bizi eta gainditzen du dolua».



Xabi Zozaia palistak
urte borobila

24

Ez du aisa ahantziko 2005. urtea Xabi Zozaia Lesakako palistak. Nafarroa, Espainia eta Europako txapeldun izan da eta bertze hainbat sari ere eskuratu ditu.

04

PATXI ZAMORANO ETA ZARBO IBARROLA

Bi doneztebar McKinley-en Ipar Amerikako gailurrean



- SUKALDEAK
- LOGELAK
- MAHAI ETA AULKIAK
- KOLTXOIAK
- LORATEGIKO MOBLEAK
- ANTIGUALEKO MOBLEAK
- KONPLEMENTUAK

• Urtebeteko epea zure erosketak ordaintzeko, kargunik gabe.

• 2500 m² ko erakusketa.
• Apartakaleku pribatua eta haurrentzako toki libreak.



N-1 errep. - 472 km
Iruñe eta Carrizosa
Iribar Puzca) Iribar Iribar
20100 LEZO (Gipuzkoa)
Tel. 943 26 11 95 • Fax 943 26 11 96
e-mail: indar-arretxea@terra.es
www.mobel-kasa.com



MOBEL - KASA

ALTZARIAK

betiko kalitatea
gaur egungo diseinuekin



SUNBILLAN ETXEBIZITZAK SALGAI

BELURRA
Promociones y Construcciones

2 edo 3 logeletako
etxebizitzak, atikoak,
garajeak eta bajeak



• IGERILEKUA,
BIDASOA IBAIA
ETA BIDEGORRIAREN
ONDOAN

• Iruñetik 20 minutura
• Iruñetik 30 minutura

Lekueder karrikan **948 450 188 - 638 845 560**

DATUAK...

• **Duela bi urte istripuan mutil laguna galdu zuen Mirentxu Goienetxe amaletarrak. Orain sei hilabete, Iruñeko *Goiz Argi* taldean biltzen hasi zen, dolumina bizi dutenak elkar laguntzeko taldean.**

• **Dizdira elkarteko Ainhoa Arburuarekin batera, gisa honetako talderen bat Baztan-Bidasoaldean sortzeko asmoa dute. Interesatuak 948 451443 telefonora deitu behar dute.**

• **Taldea sortzen ez bada bakarka ere laguntza emateko prest agertu dira.**



Mirentxu GOIENETXE *Goiz Argi* taldekoa

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Bakoitzak bere moduan bizi, sufritu eta gainditzen du dolumina»

Aitor AROTZENA

Zer da dolumina eta zer fase ditu? Maite dugun pertsona bat hiltzean gertatzen zaiguna, sentitzen duguna... hori da dolumina gehienentzat. Baina ez da hori bakarrik, badira bertze egoera batzuk ere: separazioan, ez da pertsona hil, baina bada haustura bat. Norbait galdu eta bizitzan aldaketa haundiak gertatzen direnean ematen da dolumina. Arras gai pertsonala da eta bakoitzak bere moduan bizitu, sufritu eta gainditzen du. Lehenbiziko fasean gertatu zaizuna ez dela erreala uste duzu, ez duzu onartzen. Fase laburra da, baina aunitzetan gertatzen dena. Gero, amorrerik sentimendua dator, 'Zergatik niri eta ez bertze bati?' pentsatzen duzu, norbera erudun sentitzen da eta bertzeen kontrako amorrerik ere sentitzen du, medikuen kontra, sinisten badu Jainkoaren kontra... Fase hau ere hagitx ilaburra da, baina intentsoa. Horren ondotik, gehien ezagutzen dugun fasea dator, depresioa. Lehenbiziko sentimentu horiek apaltzen joaten dira eta nekea eta tristura sentitzen dugu, ezin jan, ezin lo egin...

«Dolumina bizitzen duzunean, zure inguruko jendeak bere bizitza segitzen du, baina zu hor galditzen zara, momentu txar batean eta ez dakizu nondik gan. Horrelako talde batek lasaitasuna ematen dizu»

Azkeneko fasea gertatutakoa onartzea eta gainditzea da, pertsona hori gehiago ez dela bueltatuko eta gure bizitza berriz antolatzea.

Gai honen inguruan, eskualdean laguntza talderen bat sortzeko asmoa duzue?

Horrelako egoerak gainditzeko bakoitzak bere baliabideak ditu. Batzuk aurre egiten diote egoerari, bertze batzuk gorde egiten dira. Inguruan lagunak ditugu, senideak, eliza... bakoitzak bere errekurtsoak ditu eta erabili egin behar dira. Talde bat sortuz gero, bertze baliabide bat izanen litzateke, egoera berean dauden pertsonekin solastuz arintzen baikara. Duela bizitzen duzunean, zure inguruko jendeak bere bizitza segitzen du, baina zu hor galditzen zara, mo-

mentu txar batean eta ez dakizu nondik gan. Horrelako talde batek lasaitasuna ematen dizu, ulertzen zaituen horrenbertze jende baitago.

Izan ere, dolumina gainditzen ez bada, arazoak ere sor daitezke? Dolu normala eta patologikoaren artean bereizi behar da. Bakoitzak bere denbora behar du, baina hiru urte inguru pasatu eta ez bada depresioa pixkanaka gainditzen, ohatzean ezin jeikiz bagaude, hor bada arazo bat. Zer izaten da elkar laguntzeko talde honetan egiten duzuen?

Astean behin biltzen gara. Dolumin hori gainditzeko helburua daukagu hor biltzen garenak, eta solastu eta entzuten dugu, errespetu guziarekin. Bakoitza gure zamarekin joaten gara, solastu, aditu eta zama hori arras arinduta ateratzen zara.

Horrelako talde batera hurbildu eta norbere barrera hustutzea ez da erraza izanen...

Bakoitzak behar duen denbora hartzen du; batzuk hiru saiotara joan eta ez dute solasik egiten eta laugarrenean bapatean hitzegiten hasi eta botatzen dute.



Patxi Zamorano, McKinley mendian goiti.

ARGAZKIA: ZARBO IBARROLA

McKinley edo Denali eskimalen edo inuit-en hizkuntzan (Garaiena edo Handiena erran nahi du), mendi borexi, gogor eta esijentea da. Baina gauza guzien gainetik polita. 6194 metro dituen gailurra da, Ipar Amerikako altuena. Beraz, mendizaleen gustokoa. Baina McKinley desberdina da, igoera hagitz polita da. Oinarrizko kanpamendua 2.000 metrotan dago eta tontorrera hertze 4.000 metroko igoera du. Diferentzia handia da eta tresneria eramateko ez da sherparik. Mendi altu guzietan bezala, eguraldiak zerikusi handia du igotzen saiatzerakoan, Beraz, Munduko altuonetakoa izan ez balitz ere berdin berdin mendizaleek amestua izanen zen. Eta amets hori bete zuten Zarbo Ibarrola doneztebarrak eta Donezteben bizi den Patxi Zamorano lesakarrak maiatzean. Donezteben egindako Mendiaren Egunean esperientziaren berri eman zuten.

PATXI ZAMORANO ETA ZARBO IBARROLA MCKINLEY-EN

Doneztebeko bi mendizale Ipar Amerikako gailurrik altuenera igo dira

Xan HARRIAGUE

Patxi Zamoranok eta Zarbo Ibarrolak mendizale aunitzen ametsa bete zuten joan den udaberrian: Alaskako McKinley mendia, Ipar Amerikako gailurrik altuena igotzea. Bi doneztebarrekin batera, esperientzia handiko mendizaleak zeuden espedizioan: Mari Abrego zen espedizio burua, lehendik ere izana baitzen mendian. Berak eta Jose Mari Casimirok esperientzia ematen zioten taldeari;

Javier, Asier eta Fernando abilak, indartsuak, teknikoak eta gazteak dira eta azkenik Fito, Patxi eta Zorbok, bertze gainerakoak bezala badakite zer den 7.000 metro inguruan egotea. Izan ere, Ibarrola eta Zamoranorentzat, prozesu logiko baten hurrengo urratsa izan da McKinley. Zorbok dioen bezala, «inguru honetan hasi ginen, gero Pirinioetara, Alpeetara, Andesera Aconcagua egitera joan ginen duela 14 urte, Kilimanjaron izan gi-

nen eta azkena McKinley izan da. Progresio nahiko logikoa izan da». Lehenik, harat ailegatzeko bidai luzea egin behar izan zuten: «Iruletik Madrilera, Madriletik Amsterdamera, handik Seattlerra, Ipar Amerikako mendibaldeko kostara; Seattletik Anchorage, Alaskako hiri nagusira. Han egun batez erosketak egin eta handik, bi ordu terdiz furgonetaz Talketnara. Rangerraren galdeketa pasatu eta handik oinarrizko kanpamendura

abionetaz, glaziar batean lur hartzen da eta ikusgarria da, polita».

«HOGEI EGUNERAKO EKIPOA ETA MANTENUA GAINEAN»

Horrelako mendi batera igotzerakoan konturatzen omen zara gramobakoitzak duen garrantziaz. Alaskan ez da zama eramateko sherparik. «Zuk eraman behar duzu 45-50 kiloko ekipoa eta mantenua bi asterako. Himalayara eramaten den ekipo berdintsua eraman behar duzu. Kasik oinarrizko kanpotik tontorrera sokarekin zoaz. Janari gutti eraman behar duzu, xuhurreria batean ibili behar duzu beti. Nik musika aditzeko MP3 bat eraman nuen, 25 gramo izanzen zituen? eta hantxe gelditu zen, oinarrizko kanpamenduan!» dio Zarbok. Pixkanaka biderei ekin zioten, lehen egunean glaziar baten gainean trineoari tiraka: «Izugarri polita da, sinestezi-na, Josema Casimirok esaten zuen Alpe eta Himalayaren arteko nahasketa zela». Gero, kanpamenduz kanpamendu, gorputza egokitzten goiti joan ziren. «Beheko glaziarrean zulo aunitz badira eta sokan joan behar duzu. Goitian Pirinioak bezala da, ez da teknikoki zaila, baina erortzen bazara, akabot Kontuz ibili behar duzu eta eguraldiarekin kaso eman!». Aitzinetik ziztuzten zalantzak uxatuz, tontorrera ailegatu zirenean, pozez gainezka zeuden espediziokideak, baina ez zuten denbora aunitz eman: «Eguraldia aldatzen hasi zen, ekaitza sartzen eta mugitu egin ginen. Gauza haundirik ez zen ikusten, barreneko poza gehien bat. Argazki batzuk atera eta beheitil!».

MCKINLEY: IPAR AMERIKAKO GAILURRIK ALTUENA ALASKAN



Bere igoeraz gain duen klimagatik ere eza-guna da McKinley mendia. Alaskako meseta zentrolean kokatua dago eta Bering-eko itsasoko eta Alaskako gol-koko ekaitzak jasotzen ditu. Ikaragarri hotza da. Udan adibidez, termometroa zero azpitik 25 gradutan egoten da eta zero azpitik 40 gradutara ailegatzeko ahal da. Jasaten dituen ekaitz gogorak ere ezagunak dira. Beraz mendi gogor

baten aitzinean gaude. Zarbo Ibarrolaren ustez, garrantzitsuena eguraldia da: «Mendia teknikoki ez da zaila, hori bai oso oso hotza. Mendi altu guzietan bezala, eguraldia garrantzitsua da».

Baina dena ez da iluna eta baditu bertze zenbait abantaila, batez ere argia. Alaskan ez dago gaurik eta eguzkiak intentsitatea galtzen du baina ez da sekula ere iluntzen. Hemen, Euskal Herrian egun lainotsu bate-

an egoten den argia izaten da. Igoera gorabehera handirik gabe egin bazuten ere, jausterakoan beldurra pasatu zutela aitortu digu Zarbok: «Tontorrera ailegatuta pentsatu nuen hura egin zegoela, lasai gelditu nintzen. Baina jausterakoan 34-35 graduko maldan, trineoa aitzinean lotua daramazu eta alde batetik bertzeratzen dizu, arriskutsua da eta hor tentsio-une batzuk izan genituen».

Zarbo IBARROLA Doneztebeko mendizalea

“Norbere gorputzari neurria hartzea da garrantzitsuena”

Zergatik McKinley?

McKinley mendi mitikoa dela erraten ahal da. Lehenbiziko alaskan dagoelako eta lurralde miresgarria eta berezia da. Mari Abregorekin joateko aukera sortu zen eta probetu genuen. Bederatzi lagun elkartu ginen, bertze espedizioetatik ezagunak, talde polita atera zen.

Prestakuntza fisikoa garrantzitsuena izan da...

Prestakuntza fisikoa garrantzitsuena eta beharrezkoa da, baina garrantzitsuagoa da zure gorputzari neurria hartzea. Ahal bada ez da sobera borxatu behar, gauzak poliki egin, gorputzari begiratu. Ezagutzen ditut hemen beheitian izugarriko atletak direnak eta goitian marxatzen ez duten pertsonak.

Zure hurrengo gailurra?

Antartidara gustora joanen nintzen.

McKinleytik hurrengo urratsa Himalaya dela erraten dute, baina nerretzat sobera handia da hori, ez dut horretarako mailarik. Goi mendizalea izateko bertze pasta bat behar duzu, eta nik badakit seguro ez daukadala. Zortzi milakoen bila ibiltzen diren batzuk gloriaren ehizturiak dira eta batzuk ez dute horretarako mailarik. Nik badakit seguro ez dudala, baina jende askok ez daki mailarik ez duela. Mendizale batek hementxe bertan, Pirinioetan, baditu mendi aunitz gozatzeko eta aski zailak, mendizale bezala haunditzeko leku aski egokiak.



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria
Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 50
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.info
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apeztekoa.
Kudeatzailea: Joxemai Ingoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Berriemakalariak: Esteban Arotzena, Juana Mari Salazar, Kontxi Klaber, Pello Zestau, Arkaitz Mendegia, Franck Delosor, Margari Etxenika, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitzellorrena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gorri, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizta, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperoko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarteak, Bortziriako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sarriak:

Hego Euskal Herria	28 €
España	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerrekako eta Leizta	23 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Leitzako Institutuko atezain lanpostuari buruz

Leitzako Amazabal Institutuko Guraso Elkarteak, institutuko aldi baterako atezain lanpostua betetzeko prozedura dela eta, honako adierazi nahi du:

Institutuko atezainak baja hartu du. Eta oso kezkatuta gaude Hezkuntza Departamentuak bidali duen ordezkia euskalduna ez delako. Bigarren aldia da ordezkio erdaliduna bidaltzen dutela. Ordezkapena seguru aski luzerako izanen da. Izan ere, institutuarekin harremana dugun guztiok, gure eskubideak murriztu dizkigute. Arrazoia ezaguna da, eta, zorribarrez, ohikoa Nafarroako administrazioan: lanpostuaz jabetzeko ez da nahitaezko euskara jakin behar, merezimendu gisa soilik hartzen da kontuan.

Ahalegin handia egin da Leitzako ikastetxeetan ere, herrian egin den bezala, euskara bertako lan eta zerbitzu hizkuntza bihur dadin, eta ez da atzera egiten hasteko unea, gure ustez; eta gai hau ez da bikierria bat, jende askoren lana eta izerdia eragin baitu euskara normaltasunez erabiltzera iristek. Ez dugu, jakina, egokitu zaigun atezainarekiko kezarik, eta ez dugu emandako zerbitzua dela eta deus aipatzekorik; alderantziz, bere lana oso ongi betetzen du. Arazo bat eta bakarra da gure adierazpen hau eragin duena: hizkuntza. Egoera tamalgari honen ardura eta erantzukizuna, gure ustez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko ardura-dunena da, eta haiei dagokie konponbidea bilatzea. Guri dagokiguna da gure eskubideen defentsa egitea, kasu honetan hizkuntza eskubideen defentsa, eta horren ondorioz eskaera argia egin nahi dugu: Leitzako Amazabal Institutuko atezaina euskalduna izan dadila, institutuko bizitza, oso-osorik, euskaraz egiten jarraitu ahal izan dezagun.

Esan bezala, beraz, egoera honi irtenbidea bilatu behar zaio, eta horretarako urrats eraginkorak lehenbailehen eman daitezke eskatzen dugu, hizkuntza eskubi-

deen betetzean inor kaltetua gertatu ez dadin.

Leitzako Amazabal Institutuko
Guraso Elkarteak

Bordatxo maitea

Malerrekako gazte kuadrilla batzuen izenean, gure animoak eta gure laguntza eman nahi diogu Josetxo Beola eta bere familiari, pasatzen ari den momentu gogor eta latzengatik. Bordatxora joaten garen gazteak oso minduak gaudere gertatutakoarekin.

Denak ulertzen dugu zure mina eta zure tristura, denak larunbatero idekitzen zen dantzalekua galdu dugulako. Desiatzen dugu ahalik eta azkarren gure Bordatxo berriz zabalik ikustea. Jakin ezazu gure laguntza eta babes osoa daukazula. Besarkada handi bat eta animo Josetxo.

Malerrekako gazte kuadrillak

Berako Herriko Etxea noiz arte gazteoi adarra jotzen?

Badira bizpahiru urte Berako Gazte Asanblada martxan jarri zela eta gazteon beharrak asetzeko lokal autogestionatu baten beharra ikusi dugu hasieratik.

Hori dela eta, herrian Herriko Etxeak hainbat etxe (Kaxerna, Elektrobia, matadero...) hutsik dituela ikusirik lokal baten eskean jo genuen beraiegana bertan aitzinera eramanen genuen proiektua zein den azalduz.

Hasiera batean (hainbat aitzaki baxar eta bileraren ondotik) Elektrobia garbitu eta beheitiko solairua gazteok kudeatzeko eman baziguten ere, 2-3 egunen buruan bere jabeari "expropiatzeko" eman zioten arrazoietako bat eta guk lokalari emanen genion erabilera bat ez zetozele erranez bertara sartzea galarazi ziguten. Eman eta dena garbitu ondotik kalera-tuak?! Ezin ai da etxearen egoeraz ongi informatu eman baino lehen eta gaizki ulertuak saihestu?

Horrela, bigarren aukerara jo genuen: Kaxernara. Alkatearekin eta arkitektoarekin berau ikusten egon ginen eta Kaxernako eraiki-

naren zati bat Berako gazteok Gaztetxea sortzeko emanen zigitela adostu genuen.

Lasai egoteko eta pleno batean bertze zinegotzietan aipatu ondotik (inolako arazorik gabe ados egonen omen ziren) obra eta irekierarako lizentzia desberdinak emanen zizkigutela erran ziguten. Orduz geroztik ez dugu berririk izan eta egoera zein den jakiteko pleno bat eskatzen ari bagara ere gibelera botatzen ari dira behin eta berriz eta ez dute beraien hitza bete. Azken adibidea aste honetan bertan (2005-12-21): Gaztetxearen gaia lantzeko pleno bat burutzeko zen gazteen eta zinegotzi guztien artean. Hala ere, burutzeko zen plenoa baino ordu 1' erdi lehenago udalbatzako jendea ezin zela agertu erranez plenoa bertan behera utzi zuten. Hau ai da Herriko Etxe bati suposatzen zaion serioetasuna? Bertze auzo, herri eta hiri aunitzetan adostasunetara ailegatu badira, Beran zergatik ez? Noiz arte gazteoi adarra jotzen?

Berako Gazte Asanblada

Eta Goizuetako pilota eskola?

- Joxeanton Apeztekoa, urte askotan punta-puntako afizionatua izana.
- Juantxo Apeztekoa, bizpahiru Munduko txapela etxean daukana.
- Jon Narbarte, etorkizun oparoko 17 urteko gaztea eta dagoeneko izen handiko torneoak eskuratua, ezagunena Elgetakoa.
- Jon Apeztekoa, 30 zapelatik goitietxean daukana, Elgetakoa besteak beste, eta Aspe enpresarekin egun batetik bestera debutatuko duena.
- Joxe Julian Salaberria, urte askotan goi mailako profesionala izana eta pilota utzi berria.
- Iñaki Lujanbio, afizionatutan lortu zitekeen guzia lortua, Bartzelonako Olinpiadetako urrezko domina barne. Profesionaletan ere jokatua.
- Agustin Loiarte, 19 urterekin profesionaletan debutatu eta osasun arazoengatik sasoirik onenean pi-

• IRAKURLEAK MINTZO •

lota utzi beharrean aurkitu zena.

• Asier Olaizola, bi aldiz irabazle eta beste bitan finalista profesionalen arteko bi-biko txapelketan, eta gaur egun oraindik aurrelari onenetakoa dena.

• Aimar Olaizola, hiru aldiz lau terdiko txapeliduna, buruz burukoan behin txapelidun eta beste behin finalista, binakakoan behin finalista eta 26 urterekin, garai bat markatzen ari den pilotari handia.

• Mikel Eskudero, Igor Apezetxea, Iban Loiarde eta Ekaitz NARBARTÉ, txapelak lortzen nonahi.

• Hainbeste pilotari gaztetxo torneoak eskuratzeko ari direnak.

• Goizueta, sei aldiz irabazle Nafarroako Herriarteko txapelketan eta behin Euskal Herrikoan. Beti herriko pilotariekin bakarrik jokatuz gainera, beste inor ez bezala. Izen eta datu hauek denak bapatean atera zaizkit nere burutik, batera dokumentatu gabe. Seguru nago hemen azaltzeko merituak egindako pilotariak kanpoan utzi ditudala. Barkamena eskatzen diet.

Karta hau idaztearen arrazoia azalduko dut orain. Azkeneko Lurra aldizkarian «Leitzakoa, azken urteetako pilota eskolarik onena» izenburuko artikulua argitaratzen zenuen, 3.000 biztanle «bakarreko» herria izanik lau pilotari profesional zituela azpimarratuz. Pilota eskolan 60 gazte zebiltzala ere esaten zen.

Goizuetak 800 biztanle besterik ez dauzka eta pilota eskolan 20 mutiko dabilta. Nik Leitzari ez diot deus kentzen. Aldeantzi, aitortzen dut ederrak direla hango pilota eskolaren emaitzak. Poztu egiten naiz gainera pilotari leitzarren garaipenekin (goizuetarren kontra ari ez direnean) baina bakoitzari berea eman behar zaio, eta datuak aurrean paratuz gero ez da seguru aski Euskal Herri guzian herririk izanen, esku pilotan behintzat, gureak bezalako jokalaririk eman duenik, are gutxiago biztanle kopuruarekin konparatzen hasien baldin bagara.

Esteban Arotzena
(Goizueta)

• 11 GALDERA LABUR •

Adinez nagusia noiztik eta ikasketak zer moduz?

19 urte dauzket eh... ikasketak pixkoat aspertue nahigo pilotan aitzia, baiño ze ingo de...
Dantzaria, txistularia eta pilotaria... zer nahiago?

Pilotaria dudik gabe, dantzari barra eta txistularie erdipurdikoa.

Egia bihurtu daitekeen amets bat? Buruz buruko txapelidun ateatzea.

Pilotaria eta gaztea izanik, gaueko bestak nola bizi dituzu?

Puf, enaiz ateatzen juerga ta ateatakoan bukun ibilita. Gustatu bai baiño... pena ematen du koadrille nola joaten den ikustea...

Dagoeneko ezaguna zara eta marinelak bezala, neska bat frontoi bakoitzean?

Ez nik holakoik ezte, asko barra baiño bat ona nahigo. Bat ona behar du.

Etorkizunera begiratzuz, kirolaz bizitzea espero al duzu?

Bueno, oso zalle da. Gauzek perfektu joan da ere... lesioak diela, suerte barra... horreatik da inportantea estudiantzea.

Zerk bultzatu zintuen pilotan aritzera?

Ni ttikitatik pelotan ailtu naiz, betidanik, oaingo umek berriz ezittut ikus-

ten, gu beti pelotan aitzen gifen, eskolatik atea ta pelotan... beti.

Noiz ikusiko dugu Mikel profesionalen?

(Farrez) Eztaik oaindik asko dau ikasteko, ez dau presarik.

Zein pilotari miresten duzu eta zergatik?

Lehen ongi zeonen Goñi eta oain Irujo, klasea duelako.

Gaur egun zarena izateko, zure gururoek nolako garrantzia izan dute?

%100 dudik gabe gairfea, beaien-gatik ez balitz, ez ikasketa ta ez pelota. Txikitatik laguntza behar da.

Aurtengoan zer eskatu diozu olerterori eta ongi portatu al da?

Eskatu eskatu, osasune, eta pelotan lesioak errespetatzea eta ahal baldin bada pixkanaka pixkanaka ittea.

Mikel OLAZABAL
Aresoko pilotari gaztea



Alberto RETEGI
Altzate, 17 BERA ☎ 948 630 763
abokatua

SAROB SANDERS pentsuak
okindegia
Ezlagara, 41 - Tel: 948 630 888 - BERA

BERA Zure inguru klase guzietako insektuz (komorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu, deituz Termita eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 630 155 (Alkaiaga Industrialdea) **LESAKA**

borrIRUDI
borriru@telefonica.net
KARTELAK - KANPOTAK - BISERAK - TOSKEROKAK (Nab. Azua, mar. - d. amondak)
FOTOKOPIA DIGITALAK - KOLORETAK - TURI-BELTZAN - PLANOAK
ENKUADERNAZIOAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPERTEGIA - BULEGO MATERIALA
DISEINU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - ERROTIDAK - IMPRENTA
Ezlagara, 26 Eskaintza Behe D - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

LEGARRA
● EGUNKARIAK ● FOTOKOPIAK
● ALDIZKARIAK ● ENKUADERNAZIOAK
● LIBURUAK ● PLASTIFIKAZIOAK
● OPARIAK ● FAX PUBLIKOAK
● TABAKOAK
Egunero irekia
Tfno./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

☎ 948 631 462
Altzate 1 • BERA
Xirell

Jose I. Gonzalez Enguita
Pintura lanak orokorrean
948 630 888
948 630 888
Ezlagara 48 - 1.º sol.
21700 BERA

Merkataritza

Zerbitzuaren kalitatea eskertuz sariak jaso dituzte zenbait dendek

Doneztebeko Ostizek eta Mari Cruz lantzeriak bina sari hartu dituzte

ttipi-ttapa

Nafarroako mendialdeko Turismo Kalitate Planaren barnean dauden bederzti komertzio beraien zerbitzuaren kalitatea eta praktika egokia sarituz diploma jaso zituzten abenduaren 16an Iruñean. Ekitaldian, Juan Ramon Corpas Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilaria eta Jose Javier Esparza Cederna-Garalur elkarte-ko presidentea izan ziren, merkataria eta Cedernako teknikariek batera.

Nafarroako Mendialdeko Kalitate Plana Nafarroako Gobernuak mendialdeko udal erakundeekin laguntzarekin egiten duen proiektua da, eskualdea turismo-arentzat erakargarriagoa egin asmotan. Komertzio eta enpresa tiki batzuk, 29 mendialdean, praktika edo ohitura egokietara moldatzen dira. Horietatik bederzti sari hartu zituzten diploma. Tartean, eskualdeko zazpi denda zeuden: Elizondoko Argibel Optika, Elizondoko Ipingeri arropadenda, Doneztebeko Casa Ostiz liburudenda eta papertegia, Doneztebeko Ibarrola mertzeria, Doneztebe eta Elizondoko Mari Cruz lantzeriak eta Doneztebeko Alustiza lurindenda.



Zerbitzuaren praktika egokia sarituz diploma hartu zuten dendariak, Corpas kontseilaria eta Cedernako ordezkariekin batera.

Ez ziren horiek gure

eskualdeko dendek abenduan hartu zituzten sari bakarrak. Abenduaren 14an, Nafarroako Komertzio Federazioak Komertzioaren kalitateari buruzko lehen jardunaldia egin zuen Iruñeko Baluartean. Bertan, Komertzio Tikian Zerbitzuaren Kalitatea ziurtatzen duen UNE-17500-1 Araua banatu

zitzairen lehen aldiz Nafarroako 62 komertzio-ri. Tartean, eskualdeko hiru komertzio jaso zuten ziurtagiri hori. Berako Bortziriak etxetresna denda eta Doneztebeko Casa Ostiz eta Mari Cruz lantzeria.

Doneztebeko bi denda hauek, beraz, bi sariak hartu zituzten urtea ongi akitzeko.

NEKAZARITZA

Traktoreen ITV tailerra herriz herri dabil

ttipi-ttapa

Traktoreen eta nekazaritzako bertze tresnen azterketa tekniko edo ITVa pasatzeko tailerra hilabeteotan dabil Bortziriak, Malerreka eta Baztan aldeko herrietan barne. Eguberriak pasatu ondotik, urte berrian Erratzun izanen dira urtarrilaren 9an, Azpilkuetan urtarrilaren 10ean, urtarrilaren 11 eta 12an Arizkun izanen da tailerra, 13an Elizondon, 16an Lekarotzen, 17an eta 18an Iruñean, 19an Zuggarramurdi, 20an Gartzainen, 23an Arraiozen, 24an Zigan, 25ean Berroetan, 26an Almandozen, 27an Narbarten, 30ean Orabidean eta 31n Oronozen. Otsailaren sartura, Labaien otsailaren 1ean izanen da tailerra, Urrotzen otsailaren 2an, Oitzen otsailaren 3an, Saldiasen 6an, Iturenen 7 eta 8an, Ezkurran 9an, Eratsunen 15ean eta Zubietan 16 eta 17an.

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktua
Etegera, 3
Tel: 948 630 088
BERA

TOKI ONA - BERA Udal Kiroldegia
Abona zaituz eta ezagutu SASOIAN EGOTEAREN abarritailak
MUSKUPLUS ESKAINTZA!!!
Musculazio Gela
Kiroldegiko pistaren alokairuak
URDULI BERRI

ERREKALDE
OSTIA
PLATER KONKURTAK
PINTXAK
BOKATIAK
ITAP: 948 630 169 6204

BERA

Autobus geltoki berria egin da lamoteneako aparkalekuan

26.860 euroko aurrekontuarekin komuna publikoak ere egin dira

Amaia eta Ainhoa

Lamoteneako aparkalekuan, autobus geltokia eraiki dute abenduan. Jon Abril alkate ordeak jakinarazi digunez, «aspaldiko ideia genuen eta Nafarroako Gobernuak horrelako ekimenentzat diru laguntzak banatzen dituela aprobetxatu dugun». Ikastetxeetako, eskurtzioetako eta Donostiarako autobusak hortik ateratzen direla kontuan hartuz, hautatu dute lekua. Komuna publikoak egiteko ere aprobetxatu dute. Era-bilerako zehaztasunak ere aurkitzen ahal dira, hala nola ordutegiak. Proiektu osoak 26.860 euroko aurrekontua izan du eta horietako 10.000 Nafarroako Gobernuak eman ditu.

Oihanberritzea Lizanabarra eta Artxelun

Udalak 198.786,82 euroko inbertsioa egingen du Lizanabarra eta Artxelu inguruan oihanberritze lanak egiten. Lanak presazko lehiaketa bidez emanen dira. Interesatuak lehenbailehen aurkeztu beharko dituzte proposamenak. Proiektua eta bertze bal-



ARGAZKIA: JON ALTZUQUÉN

Nafarroa Oinez en ikurra Akonkaguan

Eguberri egunean abiatu zen Akonkaguara Bera eta Irungo hamabi mendizalek osatutako espedizioa. Joseba Redonfo, Josu Iriondo, Loli Pagola, Juanito Iriarte, Felix Solis, Carlos Solana, Alberto Sanchez, Joserra Garraus, Josema Uitz, Carmen Balmaseda, Socorro Ferrero eta Montxo Gereñok osatzen dute espedizioa. Dena ongi badao, lerro hauek idazterakoan tontorra hurbiltzen ariko dira espediziokideak. Tontorra egiten baldin badute, bertan ezarriko dute 2006ko Nafarroa Oinez en ikurra ere.

dintzak interesatuena esku daude udal bulegoetan eta Bortzirudin.

Nafarroa Oinez denda irekia

Abenduaren 16an ireki zen Alzate karrikan Nafarroa Oinezeko denda ofiziala. Esther Mentaberri da ardura-duna eta zabalik izanen da 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Arropa eta

osagarriez gain, Nafarroako produktuak ere salgai izanen dira.

Agerrako olentzeroa auzolanean

Eguberri hauetako ohiko ospakizunen artean, aurten lehen aldiz Agerran egin duten olentzeroa aipatu behar da. Auzo elkartearen deia-ri erantzunez, gazteek auzolanean aritu ondo-

tik olentzero dotorea plantatu zuten plazan, bere etxola eta guzi eta zuhaitza argiz apaindua.

Erlajazio teknikak

Urtarrilaren 10ean "Ongizate eta erlajazio teknikak" solasaldia eskainiko du gaztelaraz Marixabel Kerejetak 17:30etan Kultur Etxean, udaleko gizarte gaietarako batzordeak antolatua.



PERTSONAIA

Txelu OIARTZABAL

Gure Txokoako presidente berria

Hainbat tirabiraren ondoren zuzendaritza talde berria du Gure Txoko elkarteak. Jende berria sartzeko asmoa baldin bazuten ere, azkenean Txelu Oiarzabal da presidente berria, lehendik ere taldean zegoen kidea: «Bizpahiru bileren ondoren inor ez zegoen prest, elkarte desagertzeko arriskua ere ikusten genuen eta horregatik hasi naiz, pixko bat bortxan». Presidente ordeak Angel Ponbar, Kristina Lasarte, Josetxo San Juan eta Asier Saraguet dira. Idazkariak Federico Fernandez, Andoni Lasaga eta Maite Lekuona dira eta Ainhoa Irtzoki da diruzaina. Lehendik zegoen martxari eutsi nahi dio lehenik presidentek eta heldu den urtean elkarteak 75 urte egiten dituela kontuan hartuz, «zerbait berezia prestatu».

ANSONEA *Jaletxa*
 Eguneroko menua eta asteburutarri menu berriak
 Ostaturu bere terrazan estaliarekin eta ziberkafetegia
 Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

Javier Manterola
 - tekniko instalatzailea
 - iburgintza
 - gaitza
 - kalefaxioa
 Tel. 629 449 602 - BERA

LIBRARI
 948631076 - BERA

arropak - maindireak
 mantak - nordikoak
 toallak - kortinak
 alfonbrak
Goya
 Bera
 Alzate, 3 - Tel. 948 450 082

LESAKA

Zaine Rekondo libre utzi dute balditzapeko askatasunean

Urtarrilaren 15ean ongietorri ekitaldia egingen zaio

Aitor AROTZENA

Abenduaren 16an aske utziko zutela jakinarazi zioten ustekabearen Alcala Mecon zegoen Zaine Rekondo herritarrari. ETArekin kolaboratzaile izatea egotzita martxoaren 17an atxilotu zuten Beran eta 9 hilabete eman ditu epaketaren zain. Orain baldintzapeko askatasunean utzi dute, fidantzarik ordaindu gabe. Herrira ailegatu zenean, abenduaren 17ko goizaldeko 5etan, bere lagunek ongietorri xume bat egin bazitoten ere, urtarrilaren 15ean ongietorri ofiziala egingen zaio Zaineri eguerdian plazan. Ondotik, «Status politikoa orain euskal preso eta ihes-

lari politikoak herrira» lemapean manifestazioa egingen da. 14:30etan herri bazkaria izanenda Koxkontan. Txartelak ohiko lekuetan salgai daude, 25 euroan. Haurrentzat 7 euroko menu berezia ere izanen da. Bazkalondoa musika izanen da.

19 olentzero eta 7 jaiotza lehian

Abenduaren 24ko olentzero lehiaketan 19 taldek hartu zuen parte hiru kategoriatan banatuak eta bertze zazpi jaiotza lehiaketan. 16 urtetik goitikokategoriaran, ondoan ageri den talde honek irabazi zuen lehendabiziko saria eta olentzero onenari emandako Esparza saria.



AROTZENA, AITOR AROTZENA ETA XABO HARRIAGUIE

Batzokiko paleta-goma txapelketako txapelak erabaki ziren abenduaren 17an

Abenduaren 17an jokatu ziren Batzoki elkarteak bederatzigarren aldiz antolatutako paleta-goma txapelketaren bi kategorietako azken partidak. Bigarren mailako hirugarren posturako lehian Josetxo Mitxelena eta Juan Carlos Sanjurjo lesakarrak 30 eta 20 irabazi zieten Otegi eta Otegi oiartzuarrei. Bigarren mailako finalean, Galdona eta Roteta oiartzuarrek 30 eta 23 irabazi zieten Bereau eta Juanikorena irundarrei. Lehen mailako hirugarren postua Antxordoki eta Txoperena igantziarrek eskuratu zuten, Susperregi eta Pernauteri 30-27 irabazita. Final nagusian, Hita igantziarrek eta Lizasok 30 eta 16 irabazi zieten Santesteban eta Imanol Telletxea lesakarrari. Sariak banatzerakoan, Xabi Zozaia herriko palista ere omendu zuen Batzokik.



MARIAN MENDIBERRI ORKIN

Lurrindenda
Estetika
Opariak
Bitxiak

Depilazio arrunta
Elektrikoa
Kutis garbiketa
Manikura
Makilala
Mikropigmentazio
Masajeak
eta abar...
PUNTAKO
ESTETIKA
PRODUKTUAK
SALGAI

Berheko plaza, 8 • LESAKA • 948 637 791

SUTXIN

Txaitak-Mantelerak-Oheko mairidreak
Eskolako haurren mantelak etab...
bordatzan ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blus
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu

Don Plz. Berrio 4-ra eta Iruñe berrak eraistea!!! Tel: 948 637 660 - 637 481

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA

IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Gasolla etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

GOZZALDE

MANANDEBERIA

948 637 514

DEÑE

Lentzerria
Nertzerria

948 637 514

ETXALAR

Aspaldiko Eguberririk jendetsuenak izan dira

Haurrentzako txokolatada izanen da ortziralean Larraburuan

Joseba eta Nerea

Urteroko ohiturari segituz, Eguberrien inguruko solas batzuekin hasiko dugu urteko lehenbiziko kronika. Jende aunitz ibili da herrian egunotan. Kanpotik etorritako bisitariez aparte, herritar andanak parte hartu du Eguberrietako ekitaldietan.

Lau Olentzero eta bat bizirik

Abenduaren 24 ilunabarrean egin zuen bisita Olentzerok Etxalarra. Ongietorri gisa, urteroko moduan, herribueltan egin zen arratsaldeko mezaren ondotik. Inoiz baino jende gehiago bildu zen inoiz baino hotz handiagoari aitzin eginez. Aurten ibilbidea pixko bat aldatu zen eta Beheko Landa auzoan barna ibili ziren trikitilari, txistulari eta gainerako herritarrak. Itxura, tamaina eta aurpegi desberdineko lau

Olentzero ikusi genituen kalejira honetan. Hala ere, asto gainean etorri zen gizon bizardun dotore bat izan zen denean delgarriena. Hezurharagizko Olentzero. Astoa temazu samarra zuen eta ez zion utzi buelta guztia ematen. Hala ere, haurrak aski kontent ibili ziren haren ondoan. Elutsa ostatuan egin zen luntxarekin akabatu zen kalejira.

Haur parrasta Ela-ela eskean

Eguberrietako ohitura zaharrenetako bat Ela-Ela eskea dugu Etxalarren. Inguruko bertze herritan ere ibiltzen dira etxe etxe puskak biltzen baina "Ela-ela" abestia bezain luze eta berezirik ez da inon kantatzen. Etxalarren hamarkada aunitz dituen ohitura da.

Duela ez aunitz arte, mutilak bakarrik ibiltzen ziren eskean, baserrietan gehienbat, eta au-

zoko lagunak koadrikan bildurik. Denborarekin, neskak ere hasi ziren eta orain herriko haur guztiak segitzen dute ohitura hau. Aurten ere haur parrasta ikusi genuen urteko azkeneko egunean baserriar jantzita kantari. Goizean goiz hasita, herri osoan barna ibili ziren eta gutti batzuk baserrietara ere allegatu ziren "Ela-ela" kantuarekin. Urte franko bilduta, urte berriari ongiatorria egin zioten modu honetan.

Katekesiko haurren errepresentazioa

Aurten bigarren aldiz, errepresentazio edo antzerki bat eskaini zuten herriko haurrek joan den larunbat arratsaldean Kultur Etxean. Eguberriak aitzakiatzat hartuz, emanaldi originala izan zen eta jende franko hurbildu zen ikustera. Katekesian ibiltzen diren haurrek pres-



ARRABURU

Koadrikan bilduta, etxez etxe eskean ibili ziren herriko haur guztiak "ela-ela..." kantari urteko azkeneko egunean.

tatu zuten errepresentazioa.

Haurrentzako txokolatada Larraburuan

Ortziral honetan, Errege Eguna, hitzordua dute herriko haurrek Larraburuan jubilatuko elkartean. Urteroko gisan, txokolatada izanen dute arratsaldeko etan eta ondotik opariak banatuko dituzte han bildutako artean. Arratsalde-pasa polita egingo dute dudarik gabe.

Euskal presoak oroituz

Urtero bezala, data berezi hauetan gure artean egoterik ez dutenak oroituz zituzten hainbat herritarrek kontzentrazio ixilean. Arrazoi desberdinegatik ebetik urrun dauden presoan alde jende mordoska bildu zen Herriko Etxe aintzinean "Euskal presoak Euskal Herrira" lemapean.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

XATURETXEA



JATETXEA


948 637 027 - LESAKA

USOA

nekazari kooperatiba

ganaduarentzat pentzurik egokiak

Tel: 948 635 214 - ETXALAR



Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tlxoa: 948 630 735 - 607 406 781

ARANTZA

Olentzeroren ondotik, Errege Kabalgata izanen da ortzegunean

Elurak paisaia eder eta zurituak utzi arren, hormak arriskua ekarri du

Nerea ALTZURI

Urte berria estreinatutako berri dugu. Eguberrietako ospakizunen baitan, Olentzeroak eta urte zaharreko ospakizunak, duela dozenaka urtetik honat egiten den errege kabalgatai txanda lekukoa ematen diote. Ortzegun honetan Ekialde Hurbileko hiru erregeen etorrera izanen da eta horretarako herritar talde bat guzira prestatzen ari da. Ilunabarrean mezaren ondotik eta elizan Meltxor, Gaspar eta Baltaxarrek opariak banatuko dituzte haur eta gazteboentzat.

Agenda 21 Plana

Dagoeneko entzun eta irakurri izanen duzue zertan den Agenda 21 egitasmoa. Bortzietan eta Baztanen aurrera eramaten ari diren plana da. Joan den udan, Terra Prometea lantaldeak Bortzietako eta Baztango bizilagunei inkesta bat egin zieten, herrietako bizilagu-



Argazkia: Xabi ZUGARRAMURDI ALTZURI

Elurteak paisaia politak eta ederrak utzi ditu, baina mukutsak ere protagonismoa hartu du abiatu berri dugun urtaro honetan. Urte bukaeran ateritako argazkia da eta goi horietatik herri kaxkoa ikus daiteke.

nen kezkarik nagusienak zeintzu diren jakiteko. Hogei urtez gorako 300 pertsoneri egin zitzaizkien galdeketa Bortzietan eta emaitzak herriz herri aurkeztu ziren urrian eta azaroan, Terra Prometea, Cerdna Garalur eta eskualdeko udal partaide

diren ordezkariekin. Bortzietako herritarren kezkarik nagusienak, errepideak, etxebizitza, mugikortasuna eta lana direla islatu zen emaitzetan.

Emaitzak aurkeztu ondotik, azaroaren 29an, Herriko Etxean Bortzietako Agenda 21

tokiko foroaren lehenengo bilera egin zen. Bileran, bertako nahiz Bortzietako berrogei lagunek parte hartu zuten. Bortzietako garraioaren eta mugikortasunaren gaineko bi orduko iraupena izan zuen azterketa eta diagnosi bilera egin zen.

BORTZIRIAK

Taldekako bertso txapelketa urtarrilaren 13 eta 14an

ttipi-ttapa

Hirukotetan banatutako 24 bertsolarik parte hartuko dute aurtengo Bortzietako bertso-eskolaren taldekako 8. lehiaketan. Abenduaren 13an, Berako Espidobaitan egingen den bertso afarian bi saio egingen dira, Bertso Maratoia abiatuz. Abenduaren 14an, Lesakako Kattun egingen da bertze kanporaketa bat bertso bazkariaren ondotik eta Haizegoan, 17:00etan bertzea. Lehenbiziko kanporaketa hauetatik pasatzen diren lau bikoteek finalerdiak jokatuko dituzte 18:30etan Lesakako Zarren eta 20:00etan Atxaspin eta final nagusia, Linddurrenborda sagardotegian egingen den bertso-afariaren ondotik jokatuko da. Espidobaitan eta Linddurrenbordan afaltzeko, nahiz Kattun bazkaltzeko izena eman behar da 618 963011 telefonora deituz.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz egiteko sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Erenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

LESAKA: Bitorio, 71-behe
Tel: 948 637 050
Faxa: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabeto • Asma • Zizareak • Larri azaleko olergia
Buruko mina • Oinen izerdia • Prostatita, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrobismoa
- Begi lausoak-kataraktak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzeo
- Artritisa, erreumap
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

IGANTZI

Antonio Lizardi eta Marzelino Etxeberria omendu ditu abesbatzak

Zortzi olentzero aurkeztu ziren aurtengo lehiaketan

Oskar TXOPERENA

Dagoeneko ohitura bihurtu den moduan, Eguberri aitzineko larunbatean izan zen Abesbatzaren eta musika eskoletan ari diren haurren musika-kontzertua. Eliza bete-betearekin, ordu eta erdiz luzatu zen ekitaldian, bi zatitan banatu zuen Abesbatzak bere kantaldia. Hasierako zatiko sei kantekin polifonia jorratu zuten eta bertze sei kanta herrikoiekin eman zieten akabila. Tartean, erran bezala, instrumentuak eta korala ikasten ari diren haurrak aritu ziren, herriko txistulariak atzendu gabe. Aurtengoan izan da berrikuntza tiki bat. Izan ere, orain arteko kontzertuetan pianoa, gitarra eta txistua entzuten bagenituen, aurtengoan trikitixa ere entzuteko aukera izan baitugu. Sarai Etxarte hasi berriaren eskutik. Kontzertuaren akabilan, Abesbatza eta elizkizunen inguruan hainbertze urtez lanean aritu diren Antonio eta Marzelino beren kideen omenaldia jaso zuten. Jendearen txalo zaparraden artean oroigarria eta lore xorta hartu zituzten euren lagunen eskutik. Ortziraleroko entsaioak uzteko asmoa agertu

baldin badute ere, ez dira hemendik aitzinera ere Abesbatzatik hagitzen urrun ibiliko.

Olentzero

Zortzi olentzero bildu ziren Gabon eguneko 16:00k aldera eskola-atarian: Lau Igantziko eskolan ari direnak (Haur-Hezkuntza, 1., 2. eta 3. zikloak), Toki-Onan ikasten dutenena, Biltoki-Ekarterkoena, Biltoki-Ekarterkoena eta, aurtun lehenbiziko aldiz, Herri-kirolaren inguruan biltzen diren gazteena. Herrian barrena (ez aitzineko alean erran genuen ibilbidearekin preziki) egin zuten kalejira eta pilotalekuan izan zen ondotik lehiaketa. Epailen aitzinean bina kanta abestu ondotik haxe izan zen hauen erabakia: Olentzerorik hoberena Herri-kirol Taldearena, kantarik hoberenak Biltoki Ekarterkoenak, janzkerarik hoberena Toki-Onakoena eta, azkenik, sari orokorra Herri-Kirolakoek eraman zuten.

Zozketak

Hauek dira zozketetan saritutako zenbakiak: Abesbatzaren zozketan 1719, ari suertatu zaio saria (bildu dute dagoeneko) eta eskolakoan 0802, ari.



ARGAIAK: OSKAR TXOPERENA

Merezitako omenaldia hartu zuten Antonio Lizardi eta Marzelino Etxeberriak Eguberrietako kontzertu egunean. Bertze aldetik, hotz handiarekin egin zuten kalejira zortzi olentzeroek. Irudian bigarren ziklokoena ageri da.

Hirigintza eta etxebizitzari buruzko bilera egingen da urtarrilaren 10ean

Igantziko Biltokin bilduko dira Agenda 21ek deituta

Bortzirietako lurralde antolamendu, hirigintza eta etxebizitza gaiei buruz solasteko bilera deitu du Agenda 21ek Igantziko Biltokin, urtarrilaren 10ean, asteartearekin, 19:30etatik aitzinera. Bortzirietako Agenda 21eko bigarren foroa izanen da hau, azaro-

aren 29a Arantzan bildu baitziren garratza eta mugikortasunari buruz solasteko. Orduan bezala, Igantziko bilera deialdia udal ordezkariari, teknikariari, elkarte eta herri taldeetako ordezkariari eta herritarrei luzatu zaie. Halere, edonor joan daiteke.

Ark_b arkitektura bulegoa

Cello Lana Ranz
Huarte Goltzal 7 - 31880 Leitza - 645006478 tel

Erakuntza Hirigintza Udal-ahokufarritza

BORTZIRIAK

227 idazlan aurkeztu dira ipuin lehiaketan

Abenduaren 16an banatu ziren sariak Berako liburutegian

ttipi-*ttapa*

Iazko Bortzirietako haur eta gaztetxoek ipuin lehiaketan 227 ipuin aurkeztu ziren. Bertzeetan ez bezala, gailibrea izan zuten. Sari banaketa Berako liburutegian egin zen abenduaren 16an. Sariak beraien ipuinaren zati bat irakurri zuten eta aldi berean, ekitaldia aberasteko ipuin kontaketak izan ziren.

Lehen Hezkuntzak 3. eta 4. mailakoei zuzendutako A mailan 91 ipuin aurkeztu ziren eta hiru lehendabiziko sariak Beran gelditu ziren. Angiurta Lanz Solbesen «Baserritar argia», Mi-

ren Teiletxea Manteroiaren «Tomate sorgin-
dua» eta Idoia Bertiz Agirrereren «Sorginen erratza» izan ziren ipuin saridunak.

B mailan (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak) 49 ipuin aurkeztu ziren. Hiru sariak Lesakako Arritxu Muxika Karrionen «Estutxe galdia», Berako Joseba Martinez Guerraren «Plist eta Plosten bizitza» eta Berako Irati Errandonea Zozalaren «Orratz mingarria» ipuinentzat izan ziren.

D mailan (DBHko 1. 2. maila) 36 ipuin aurkeztu ziren. Berako Eider Pikabearen «Uda-



Argazkia: JON ALTZUGUREN

Bai Euskarari Zozketan saritutakoak

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Bai Euskarari Zozketa egin du. LBortzirietako etxeko tresna dendak emandako MP3aren zenbaki saritua 00.085 izan zen eta Ekilur inprimategiak banatu zuten. Getariako Mikel Muñoiari egokitu zaio. Etxalarko Herriko Ostatuan otordua, 11.067 zenbakiari egokitu zaio. Labiaga ikastolak banatu zuten ikasleen familien artean eta argazkian ageri den Maddalen Garbisuri egokitu zaio. Hlgantziko Kulluxka Estetika Zentroak emandako masaje osoa eta aurpegiko tratamendua 10.152 zenbakiari egokitu zaio. Ostargi optikak banatu zuten eta Berako Edurne Mitxelenak eskuratu du.

ren bila», Lesakako Olaia Iantziaren «Abenturen alde onak» eta Lesakako Maddi Tabernaren «Bortzirietako harri bitxiak» ipuinak izan ziren saridunak.

E mailan (DBHko 3. eta 4. mailak), azkenik, 51 ipuin aurkeztu ziren. Berako Amaia de la Cruz Etxegaraireren «Asteburu bat», Igantziko Eider Sagastibeltza Pikabea-

ren «Ikastola ez zait baxterre gustatzen» eta Berako Unai Rodriguez Kortaren «Espainiako gerra hasi aurreko asteak» ipuinentzat izan ziren sariak.

1951tik lantzeria-etxea

Casa Cambra

Merkealdia, Aste txoria
urtarrilaren 15etik aintzineria

- edredoi nordikoak
- estredoi-azal nordikoak
- ohe estalkiak
- maindireak
- toailak
- kuxinak
- albornoak
- mantelak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

DONEZTEBE

Bordatxo dantzalekua erabat hondatu du ETaren lehergailuak

«Iraultza zerga ez ordaintzeagatik» izan dela dio Josetxo Beola jabeak

ttipi-ttapa

Abenduaren 21ean ETak jarritako lehergailu batek Bordatxo dantzalekua erabat hondatu zuen. Aitzinetik abisua emana zen eta horregatik, zauriturik ez zen izan, baina diskoteka erabat suntsitu zuen —bota egin behar ko dutela adierazi du Josetxo Beola jabeak— eta inguruko eraikinetan kalte arinagoak izan ziren. Halere, diskotekaren gibelean dagoen base-rrian kalte larriak antzeman dituzte egitura nagusian. Horrez gain, 25 etxebizitza, hamabi denda, bortz garaje, zazpi etxabe eta trasteleku batean kalteak gertatu ziren. Bi autoren jabeak ere salaketak jarri dituzte. Ondasun horietan pitzadurak, egitura hondatuak, kristal hautsiak eta pareta mugitua agertu dira. Etxebizitzetan ez ezik, eraikin publikoetan ere kalteak izan ziren, handienak osasun etxean, ikastetxean eta hilerrian.



Vicente Ripa, Espainiako Gobernuako ordezkaria Nafarroan, Josetxo Irigoien alkatearekin eta guardia zibileko ordezkariarekin, ehregailuak Bordatxon eragindako kalte izugarriak aztertzen.

Abenduaren 27an egin zen bileran kalteordainak eskatzeko eman behar diren urratsen berri eman zen.

Leherketaren biharamonean, Vicente Ripa, Espainiako Gobernuako ordezkaria Nafarroan Doneztebera etorri zen gertaerasalatzera. Uda-

lak ez ohiko batzarra egin zuen eta atentatua ahobatez salatu zuen: «*herriari min handia egin diola*» adieraziz.

ETak bere gain hartu du atentatua eta Josetxo Beolari «*salataria eta Espainiako indar armatuaren kolaboratzaile izatea*» egotzi. Jabeak,

ordea, salaketa hori ukatu du eta «*iraultza zerga ez ordaintzeagatik*» izan dela jakinarazi du. «*42.000 euro eta interesak eskatu zizkidaten, azken abisua zela eta mehatxua bete dute*». Larunbatean erasoaren kontrako manifestazioa egin zen herrian.

FLASH

Errekako saskia eta egutegia

Abenduaren 24an egin zen Erreka kirol elkar-tearen Eguberrietako saskiaren zozketa. Zerbaki irabazlea 1.580 izan zen. Dagoeneko atera da irabazlea: Zigako Celestino Osakar, bertze aldetik, Errekako 2006ko egutegiak hiru eurotan salgai jarri ditu ondorengo lekuetan: Ostiz Etxea, Doneztebe gasolindegia, Titi ostataua, El Cafe ostataua eta kiroldegian. Egutegian, elkar-teak gaur egun dituen talde eta sekzio guztien argazkiak agertzen dira, baita Errekak izan zuen eskubaloiko lehenbiziko taldearena ere.

Anasaps-en aldeko mariatxia

Lehergailuak hondatu aitzineko aste hondarrean, abenduaren 17an, 1.500 lagun bildu ziren Bordatxo dantzalekuan, Anasaps Osasun Mentalerako Nafarroako Elkar-tearen alde egindako jaialdian. Chuchin Ibañez eta Jesus Tapiz-en mariatxiak eta Jalisko Band izan ziren eta sarrera osoa, 8.000 euro, elkar-tearentzat izan zen. Ainhoa Arburua, Dizdira taldeko ordezkariak eskerrak eman zizkien bertaratuakoei.

R + M

ARKITEKTURA
ETA HIRIGINTZA

IPARRAITE 1006, 4E. 2.A. 20204. IBAÑ. GIPUZKOA
TEL / FAX: 943 43 43 30
estudi@r+m.com

ANOKIARITZA
PROIEKTUAK
ORRI ZUZENDARITZA

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080

Fax: 948 450 334

DONEZTEBE



MALERREKA-BERTIZARANA

Bertso-paper eta ipuin lehiaketako sariak eman ditu Euskara Zerbitzuak

Guzira 84 idazlan aurkeztu dira

ttipi-ttapa

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak zazpigarren aldiz antolatutako ipuin eta bertso-paper lehiaketaren sari banaketa egin zen abenduaren 21ean Doneztebeko eskolan. 17:00etatik aitzinera besta ttikia egin zuten, partehartzaile guzietan oparixoa eman zitzaion eta ondoren zokotea eta bizkotxoak dastatzeko aukera izan zuten.

Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei zuzendutako lehiaketa da eta guzira 84 lan aurkeztu dira, 56 ipuin eta 28 bertso-paper. Partehartzaileak bi kategoriatan banatzen dira, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak alde batetik eta 5. eta 6. mailakoak bertzetik.

Sariei dagokionez, ipuin lehiaketan, 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoen artean, NARBARTO ION ARRATXEAREN «Mikel belarri handi» ipuinarentzat izan zen

lehen saria eta Doneztebeko Fermin Estanbare «Katua eta sagua» idazlanarentzat bigarrena.

10 eta 12 urte bitarteko kategorian, NARBARTO AIDE TXOKARRO Ezkurraren «Mendian galduta» ipuinak eskuratu zuten lehen saria eta ERATSUNGO IRANTZU MITXELAREN «Olentzeroren opariak» ipuinak bigarrena.

Bertso-paper lehiaketari dagokionez, sari gehienak Iturenen gelditu ziren. 8 eta 10 urtekoen artean, ITURENGO IZARO ARIZTEGIK lortu zuen lehen saria «Elizara jotzen naizenean» bertso-sortarengatik. Bigarren saria, ITURENGO AITZ AIOROAK eraman zuen, «Bestak» izenburua zuten bertsoengatik. 10 eta 12 urte bitarteko mailan, lehen saria ITURENGO GARBIÑE OLAZAR BAZTERRIKAK eskuratu zuen eta bigarren saria DONAMARIAKO AMAIA INDAK. Biek Eguberriak auke-ratu zituzten gaitzat.



ARGAZKIA: MENA

1.200 gramoko onddoa harrapatu zuten NARBARTO BORDAXURIN

Onddo denboraldia akituxea baldin badago ere, NARBARTO ATERATAKO ARGAZKI HAU ARGITARATU GABE ezin utzi. VICTORIANO URROZ NARBARTARRAK 1.200 gramoko onddo hau harrapatu zuen urriaren azken aldera NARBARTO BORDAXURI inguruan. ARGAZKIAN GALZKA AGIRRE ILOBAREKIN ageri da.

FLASH

Oizko batzorde kudeatzailea

Nafarroako Gobernuak Oizko bigarren batzorde kudeatzaile bat izendatu du. 2003ko martxoan udal hauteskundetan ez zen inor aurkeztu eta gauza bera gertatu zen urte bereko urrian. Orduan, legeak agintzen duen bezala, Nafarroako Gobernuak, batzorde kudeatzailea izendatu zuen. Oiztarrek batzarrean zerrenda hori ez zela egokia erabaki zuten eta gibelera bota zuten Iruñetik egindako proposamena. Oraingoan honako hauek izendatu dituzte Iruñetik: Alberto San Miguel, Javier Ariztegi, Jose Luis Anso eta Luis Mindegia. Badirudi orain herritarren oniritzia izanen duela batzordeak.

Ezkurrako Ertekoetxearen alde

Ezkurrako Ertekoetxea erabat kixkali zen azaroaren 20an. Bertan bizi ziren Carlos Pacheco Iturrategi eta Mara Guzman bikotea. Naizem semearekin eta zakur batekin. Soinean zeramaten bertzerik ezin izan zuten atera. Horregatik, familia hau laguntzeko kontua ireki da Leitzako Euskadiko Kutxan: 303501363113610 19025.

ELIZONDON EREKI DUGU!

abartan

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA

- ateak • leihoak • kontraleihoak
- manparak
- zamikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gutxioko kalefakzio elektrikoak


Santago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
Tel. 948 581 152 • 667 264 025 • 698 970 725
maxoned@terra.es

TOLDOOS BAZTAN

TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak
venecianak-PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behe - BERA

Gastronomia



2006eko urtarrilaren 5a

gastronomia errezeta bilduma

Amezti
Antxitonea
Arotxa
Benta Miguel
Donamariako Benta
Herriko ostatua
Ibarburu
Irubide
Iturengo ostatua
Kasino
Kortarixar
Lugarana
Zubiondo



- ENTSALADA ETA SARRERAK
- ARRAINAK
- HARAGIAK
- POSTREAK

Aurkibidea

<p>■ Kalabaza betea piper saltsarekin ANTXITONEA JATETXEA Elizondo3</p>	<p>■ Ostruken xerra kabrales erara ITURENGO HERRIKO OSTATUA Ituren6</p>
<p>■ Garaiko barazki panatxea, onddoen olio errea eta kalabaza purearekin AMEZTIA JATETXEA Doneztebe3</p>	<p>■ Aratxe-masailak ardo beltzarekin erregosita patata kremarekin AROTXA JATETXEA Legasa6</p>
<p>■ Leka, foie plantxan, otarrainxka eta fruitu lehorren entsalada epela BENTA MIGUEL JATETXEA Ibardin3</p>	<p>■ Behi-isatsa edo buztana IRUBIDE OSTATU JATETXEA Lesaka6</p>
<p>■ Patata, sagar eta mi-cuit milorria LUGARANA JATETXEA Dantxarinea-Urdazubi ..3</p>	<p>■ Ahatea laranja erara ZUBIONDO SAGARDOTEGI JATETXEA Bera6</p>
<p>■ Zapo txikia labean baratxuri saltsarekin DONAMARIAKO BENTA JATETXEA Donamaria5</p>	<p>■ Kremazko tututxoak HERRIKO OSTATUA Etxalar7</p>
<p>■ Legatza nafar modura IBARBURU JATETXEA Doneztebe5</p>	<p>■ Limoi eta merenge pastela KASINO JATETXEA Lesaka7</p>
<p>■ Zapoa onddo saltsan KORTARIXAR SAGARDOTEGI ERRETEGIA Elizondo / Doneztebe5</p>	



AMEZTIA JATETXEA

Doneztebe

Garaiko barazki panatxea, onddoen olio errea eta kalabaza purearekin

OSAGAIAK (4 pertsonentzat):

- Lekak
- Ilarrak
- Kardua
- Alkatxofak
- Gari-zainzurak
- Zerba
- Kalabaza


Egosi barazki guztiak banan-banan punttu puntuan jarri arte. Kalabaza pure arina egin patata eta porruekin.

AURKEZPENA:

Plateraren inguruan barazkien bougueta borobilean jarri, erdialdean kalabaza purea eta gainetik onddoen olio errea bota.



Ameztia karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 451 902



ANTXITONEA JATETXEA

Elizondo

Kalabaza betea piper saltsarekin

OSAGAIAK (4 pertsonentzat):

- 4 kalabaza ertain
- Esnea
- Hirina
- Tipula
- Pikillo piperrak
- Esne-gain likidoa
- Tomatea
- Gatza
- Olioa
- Perrexila

PIPER SALTSA

6 pikillo piperra gordnik, edalontzi ertain bat esne-gain likidoa, tomatea, ur pixka bat, gatza eta perrexila eta gordinean irabiatu.

NOLA EGIN

Kalabazak ongi garbitu eta bi zatitan puskatu eta hauek erdik. Ura irakinean gatzarekin ongi egosi berrualdea ongi egin arte. Bexamela egin kalabazaren pulparekin eta hozten utzi. Kalabazak piper saltsarekin bete.

AURKEZPENA:

Plateran piper saltsa bota eta ganean 4 kalabaza beteak jarri. Gainetik emmental gazta bota eta ongi berotu mikrouhinean.

Braulio Iriarte
ELIZONDO
Tfnoa: 948 581 807



BENTA MIGUEL JATETXEA

Ibañeta

Leka, foie plantxan, otarrainxka eta fruitu lehorren entsalada epela

OSAGAIAK (4 pertsonentzat):

- 200 gramo leka
- 1 ala karatsuri
- 8 lile hoste
- 8 letxuga hoste
- 4 otarrainxka
- 4 foie fresko zerra
- 20 g. pikillo
- 20 g. pistatxo
- 20 g. almendra txikituta
- 20 g. mertxika-zati iderri
- 20 g. mahaspasa
- Olibo olioa
- Modenako ozipi-olioa
- 20 duzillo apurto gatzituta
- Gatza eta piperbeltza

Leki hariak kendu, zati finetan moztu, uretan eskaldatu eta gorde. Lebuga eta loloa garbitu, puskatu eta bol batean utzi. Duzkagun fruitu lehorren erdia bakarrik gehitu, gainerakoa dekoratzeko beharko dugu.

Ondoren, isatsa utziz, otarrainxkak zuritu, bizkarrean ebaki txiki bat hestea kentzeko, gatza eman eta oliboan busti. Plater batean almendrak, pifioiak eta geratzen diren pistatxoak nahasi eta otarrainxkak fruitu lehor hoietan pasatu ongi estalita gelditu arte. Zartagian frijitu gehiegi egin gabe. Ondoren foiei gatza eta piperbeltza bota, zartagian kanpotik pixkat gorritu.

Ozpi-Olibo egiteko: Bol batean otarrainxkak frijitu ditugun olio jarri, oportoa, Modenako ozipi-olioa, mertxika-zati txikiak, mahaspasak eta gatza. Ongi nahasi eta utzi.



Ibañeta gaina
BERA
Tfnoa: 948 631 209
bentamiguel@cin.es



LUGARANA JATETXEA

Dantxarinea -Urdazubi

Patata, sagar eta mi-cuit milorria

OSAGAIAK (4 pertsonentzat):

- 4 medailoi Martiko ahate foie-gras mi-cuit (90 gr)
- 4 patata
- 4 golden sagar
- 250 ml esne-gain likido
- 250 ml esne
- 2 koilarakada haragi-saltsa

Patatak eta sagarrak zuritu, eta zerra ahalki eta finetan puskatu. Laberako erretiluan sagar eta patata zerrekin kapak egin; gatza eta piperra eman, eta esne-gain eta esnerarekin estali. Erretilua aluminio-paperarekin estali, eta zuluatu. Labean eduki, 180 °tan, ordu batez. Mi-cuita molde borobil batekin moztu eta zerra milorriaren ganean jarri. Gainetik haragi-saltsa bota.



VENTA PEIO
Dantxarinea
URDAZUBI
948 599 400

DENBORA:

- Ordu bat eta 15 minutu



gastromonia
errezeta
bilduma
06/01/05



ARMUA

Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. km
948 599 131 - URDAZUBI



Urrekin egina
Tartak eta pastelak
Etxean egindako izozkia

Gozotegia

Santiago, 15 - Tel: 948 580 061 - ELIZONDO



ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK

Parrilan egindako haragi eta arrainak Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378
ARIZKUN

EDARIAK



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

PIKABEA

harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284




ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostata
Hotela - Trinketea

Menu Beretzak

Tel: 948 581 807
948 581 853

antxitonea@terra.es - Braulio Iriarte karrika - ELIZONDO

Uxoa



Ordoki Industrialdea • 31713 ARIZKUN
Tfnoa: 948 453 403

OKINDEGIAN

• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

JATETXEAN

- Menua eta Karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakletan

*Enkargatuz gero, bildotsa
ogi-labean errea,
Goxo-goxoa!*



OIHANGINTZA

gehigarria



LOREAK ETA LANDAREAK

Lorategiak apantatzeko aukera gabela

Frain Auzoa • LESAKA • 948 637 826

BAXERRI



- Lorategien zainketa
- Mendiko lanak

616 243 530

Ituzkia
Larrazaintza • Jardineria



HIDROEREINTZA

KIMAKETA BEREZIAK

Arboletan
Bereziak
Mantentzeak



Zuhaitzak
arboletan

Zuhaitzak
arboletan

FERRIN MARTORENA LARRALDE
Irujoa 44/45a, 12
01000 BILBAO (Bizkaia)

945 407 214
948 631 199

Neguko kimaketa

Komenigarria landareak indartzeko

Azarotik apirila arte landare gehientsuek hibernatzen dutenez, horixe da, generalean, inausketa edo kimaketa egiteko sasoirik onena. Kimaketari esker enborra eta adarrak indartu, hazkuntza erregulatu eta kaltetuta edo gaixorik dauden adaxkak kenduko dizkiogu landareari. Ez dugu ahaztu behar landareak izaki bizidunak direla, eta gaizki eginak edo desegokiak diren kimaketak kalte egiten ahal diotela. Horregatik, kimatzen hasi baino lehen komeni da ikastea zein ebaketa-teknika erabiliko dugun. Kimatu behar den landarea aztertu behar dugu lehenik, antzemateko zein diren kaltetuak, gaixotuak edo hilak diren adar eta adaxkak. Beti ere, komeni da landarearen erdialdea garbitzea, argitasuna toki guztietara ailegatzeko.

KIMAKETA GUZTIAK EZ DIRA BERDINAK

- **OSATZE-KIMAKETA:** handitzen denean landareari eman nahi zaion itxura lortzeko egiten da osatze-kimaketa, nahi dugun itxura horretara lehenbailehen irits dadin.
- **EKOIZPEN-KIMAKETA:** honen helburua organo naturalen (batez ere lore, hosto eta fruituen) ekoizpena sustatzea da. Lehendabizikoan, kimaketa zatika egin behar izaten da, landareari lore helduak kenduz, bere hazkuntza kontrolatzeko. Bigarrenean, kimaketa handia egin behar diogu maiz, landarea mardul, trinko eta apal mantentzeko: interesatzen zaiguna ez da lorea, hostaila baizik. Ekoizpen-kimaketa fruta-arboletan egiten da gehien.
- **BERRITZE-KIMAKETA:** berehala gehiegi hazi diren edo fruitu edo lore gehiegi eman duten landareei egiten zaie, garaia baino lehenago zaharkitu edo agortu direlako. Landare indartsuetan bakarrik egin ahal izanzen da honelako kimaketa, kimu berriek elikatzeke erreserbako gai ugari biltzen duten sustri eta zain lodiak baldin badituzte.



- **GARBITZEKO KIMAKETA:** hauxe da gehien egiten den kimaketa; negu parteko lehen urrats gisa, lore helduak eta kaltetuak edo lehortuak diren elementuak kenduz. Izenak dioen bezala, landarea garbi mantentzeko aplikatzen zaio kimaketa mota hau.
- **ERNALDI-KIMAKETA:** zainaren burua ebakitzen da, landarearen hazkuntza edo luzapena galarazteko, landarean edo zainean adarrak ugaltzeko joera probokatuz. Gisa honetara bolumen handiagoko landareak lortzen dira, hostaila mardulagokoak eta trinkoagoak.
- **HOSTAILA MURRIZTEKO KIMAKETA:** hostoen dentsitatea arintzeko egiten da, landarea egurasteko eta bertako elementuen arteko lehiakortasuna saihesteko helburuz.



KIMATZE LANAK • ZERRAKURAK PLANTAZIOAK

Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 287
699 461 394
SUMBELA • NABARROA

Ginko

Lorategi ekologikoak
Ureztatze instalakuntzak
Landaketa aholkuak
Fitosanitarioen aplikazioak
Itelardi, hesi eta ureztatze mantenimenduak

ZURE AURREKONTURA MOLDATZEN GARA

Carlos Txoperena
mendi garbiketak eta landaketak

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

JOHN TELLETXEA MAYO
NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOA

Bittiria 4, 2. esk • Lesaka • Tel. 948 627 561

zure publizitatea jarri nahi baduzu,
deitu **948 63 54 58**
telefonora

KIMAKETAK	
LANDAREAK	
FRUITU ARBOLAK	neguan barneko adarrak eta hondatuak udan txupoiak eta hondatuak
LORATEGIKO ARBOLAK	neguan hostoak galtzen dutenak
ARBUSTOAK	orohar neguan
LOREDUN ARBUSTOAK	lorearen galdu ondoren
HESIAK EDO SETOAK	
HOSTOA GALTZEN DUTENAK	neguan behin
HOSTOA GALTZEN EZ DUTENAK	Udazken eta udaberri hasieran
LARROSAK	
LOREA BEHIN EMATEN DUTENAK	irailean
LANDARE IGOKARIAK	irailean
BESTEAK	irailean adaxka titikiak eta barrenera begira daudenak
SASOI BAKOITZEKO MENDI LANAK	
MENDIKO KIMAKETAK	urte guztian
ZERRAKURAK	urte guztian
MENDIKO LARREAK GARBITzea	urte guztian
UDAKO GARBIKETAK	ekainaren 15etik irailera
LANDAKETAK	irailetik martxora bitarte

Ezkabarte industrialdea, M1
31194 ARRE (Nafarroa)
Tfnoa: 948 196 453
Faxa: 948 196 351
basartea@basartea.com
www.basartea.com



basartea

Ingurugiro eta basoen proiektu
eta ikerketak



Zatoz loreak
ikustera,
gustura
aterako zara

ENDANEA MINTEGIAK INGURUKO LORE MINTEGIRIK EDERRENA

Fruitondo eta larrosak aldatzeko sasoia

Larrosak 40 kolore, estilo eta usai ezberdinetakoak

Fruitondo txertatuak aukeran,

60 klase ezberdin:

Sagarrak (jatekoak eta sagardokoak),

udareak, gereziak, muxikak,

brifoiak, kiwiak...

Fruitondoak neguan zaintzeko
xomorroen aurkako produktuak

OPARIAK: Zentroak, lore sortak

etxera, lantegira, ospitalera...

eramaten dira

telefonoz eskaera eginda.



Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera

9:00 - 20:00

Asteburu eta Jai egunetan

9:00 - 13:30

Jaizubia Auzoa, 40
HONDARRIBIA

Tfnoa: 943 641710

www.endanea.com





DONAMARIAKO BENTA JATETXEA

Donamaria

Zapo txikia labean baratxuri saltsarekin

OSAGAIAK (4 pertsonentzat):

- 10 zapo txiki garti 200 gramo ingurukoak
- 20 baratxuri ale
- 300 dezilitro ozpin
- 20 piperbeltz ale
- 50 gramo gatza
- 20 pipermin (kaiena)
- 1 litro olio 0,4°
- Perrezali zehetua

Elitze batean, su eztian, olio jarri eta alde zurretik zapatutako baratxuriak, piperminak, piperbeltza eta gatza bota. Behin olio berotu denean, sartu ditugun gaik gorri gabe, ozpina eta gatza gehitu eta sutik baztertu.

Bertzalde, labe-azpil batean olioarekin igurtzitako zapoa jarriko dugu eta labean 180° tan sartuko dugu. 10 minutu inguru pasatu direnean labetik atera eta buruntzali bat saltsa gehituko diogu. Aki berean azpila mugituko dugu saltsa loditzeko. Aurkezpeperako, plater sakon batean zapoa saltsarekin jarri baratxuri eta piperminak ikus daitezen salatu. Bukatzeko perrezalarekin hautsezatu.

2 jangela
Itxita: Igande gaua eta astelehena.
Eguberrietan itxita.
urtarrilaren 10 arte

Bentak • Donamaria
Tfnoa: 948 450 708



I BARBURU JATETXEA

Doneztebe

Legatza nafar modura

OSAGAIAK (partea bakartzat):

- 200 gr legatz
- 2 ganba
- 5 almeja
- Zainzuri txiki bat
- 25 gr honddo
- Arraultza-irina
- 20 gr gurin
- 75 ml esne-gain

200 gramoko legatz kerra bat hartu eta bi puskatan zattu. Puska mamitsuena eskuakin zapatu eta saski gisako bat egin. Barmua ganba, zainzuri eta onddoez bete eta bigarren puska bukiagoarekin erabat estak. Guztia eskuarekin binbidu, arraultza-irinetan pasatu eta frijitu horitu arte. Gero gorde. Bertze alde batetik 20 gramo gurin zartagan urtu eta legatza bertan bota. Arrai zopre (*) buruntzalkada bat, esne-gain likido poka bat eta bost almeja bota eta 10 minutuz labean sartu 180 gradutara.

(*) Arrai zoparik ez baduzu arrai-salda eta tomate frijitu poka bat erabiltzen ahal duzu.



Iruña-Irun errep.
55 km
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 456 161



KORTARIAR SAGAROTEGI ERRETEGIA

Elizondo/Donztebe

Zapoa onddo saltsan

OSAGAIAK (4 pertsonentzat):

- 2 zapo
- Oliba olio
- Baratxuria
- Tipula
- Libro esne-gaina
- 200 gr onddo

Hasteko zapoari gatza bota eta baratxuri eta oliba olioarekin labean sartu. Bertzetik, onddo-saltsa egiteko, zartagi batetan tipula eta baratxuria frijitu eta onddoak bota. Utzi su ezti ezian egin daitezen.

Eginak daudenean, onddoei esne-gaina bota eta nahasi poliki poliki ontzian itsatsi ez dadin. 20 bat minutuz eginen da. Bi gauzak eginak daudenean, zapoa plateran jarri eta saltsa gainetik bota.



Santa Luzia, 5
DONEZTE

Industrialdea
ELIZONDO

Tfnoa: 626 532 452



gastonomia
errezeta
bilduma
06/01/05



Zalain
jatetxea

Zalain z/g • Bera-Nafarroa
Tfnoa: 948 63 09 67

- Sasoian sasoiko platerak
- Ospakizun berezietako jantokia
- Menua eta karta



Herriko Plazan
ITUREN
Tfnoa: 948 451 430

ITURENGO HERRIKO OSTATUA

Ituren

Ostruken xerra kabrales erara

OSAGIAK (bertanentzako)

- 2 xerra 150 gr
- Gurina
- Kopa 1 Whisky
- Koilarekada bat irin
- Kabrales gazta zati bat
- Esne gain likidoa

Zartagi batean gurina jarri eta xerrak gutti egin. Sutik atera eta whisky kopa gainera oxuri. Xerra zartagitik atera eta plateran jarri. Zartagi berean xerrak utzitako saltsakin irina koilarekada, gazta eta esne-gain likido poka bat bota. Saltsa hori ostruken xerrari gaintek bota.

Errezeta



- Parrilan espezializatuak
- Edozein ospakizunetarako leku aproposa
- 80 laguntzako lekua
- Itxita: Astelohen gaua eta asteartea

Santa Katalina, 34
LEGASA
Tfnoa: 948 456 100

AROTXA JATETXEA

Legasa

Aratxe-masailak ardo beltzarekin erregosiak patata kremarekin

OSAGIAK: (4 laguntzako)

- 2 aratxe-masail
- 1 porru
- 1 tipula
- 2 azenario
- 3 baratxuri ale
- Patata kremarako osagaiak: 2 patata eta 300 ml. esne-gain likidoa

Aratxe-masailak barazkiekin egosi. Ardo beltza gaintek bota eta egosten jarraitu eginak egon arte. Eginak daudenean atera eta pikat hozten utzi xerratan mozteko. Aratxe-masailak atera ondok, kazolan gelditu zaigun barazki horrekin eginen dugu saltsa. Horretarako barazkiak trituratu eta iragazi. Ondoren, xerrak saltsa horretan sartu eta irakiten utzi. Patata purea egiteko, patatak puskatu eta egosi. Ondoren ura kendu eta esne-gain likidoan irakiten hasten den arte sutan jarri. Purea oso fina gelditu arte trituratu eta gatza eman. Sagar purearekin lagundoko dugu. Horretarako, 2 sagar azalik gabe egosi eta ur poka bat, linoi erdi baten zumbora eta azukrea bota. Sagarra desagitzen hasten denean sutik baztertu eta trituratu.



Errezeta



Biurrana auzoa
LESAKA
Tfnoa: 948 637 127

IRUBIDE OSTATU JATETXEA

Lesaka

Behi-isatsa edo buztana

OSAGIAK (bertanentzako)

- 2kg. behi-isats junturatik moztua
- 2 tipula
- 4 baratxuri ale
- 2 azenario
- Tomato bat
- Ardo beltza
- Ardo txuria
- Oliba olioa
- Ura edo salda
- Irina.

Inean isats puskak pasatu eta fritu. Ondoren, barazkiak juliana erara moztu eta kazola batean polki polki egiten jarri. Barazkia egin daudenean, isatsa fritua bota eta gehitu ardo txuria eta beltza. Haragiak saltsa hori kontsumitzen edo xurgatzen daudenean ura edo salda bota. Gurtia hau suan polki-polki egin arte kosta.



Nahi izanez gero hornigail gisa patatak, harrapimok, larrak... jarri

Errezeta



Alasta karrika - Alkalaga
BERATIK
Tfnoa: 948 625 472

ZUBIONDO SAGARDOTEGI JATETXEA

Bera

Ahatea laranja erara

OSAGIAK (bertanentzako)

- 700 gramoko 2 ahate
- 3 tipula handi
- 2 azenario
- 1 piper berde
- Gatza eta piper beltza
- 1 sagar
- 1 litro laranja zuku
- 2 ezti koilarekada
- Edalontzi bat ardo beltz
- 1 koilarekada irin

Ahateak gatz pipertu eta olio pittin batekin ongi gorritzen utziko ditugu. Barazkiak juliana erara moztu eta ondoren eitzera erantsi. Eitze txiki batean laranja zukua eta 2 ezti koilarekadak murriztu dafrezela. Ahateak eta barazkiak ongi gorrituta daudela ardoa, laranja zukua eta katilu-kada bat ur erantsiko ditugu. Ordu luzez egosten utzi. Dena ongi egosi denean, ahateak erdibik puskatu eta saltsa iragaziko ditugu. Irina ur poka batean nahasi eta iragazitako saltsari erantsiko ditugu. 10 minutuz gogatzten utzi eta listo dago jateko. Ongi fritu eta laranja xerra batzuekin arkezatu. Or egin.



Errezeta



HERRIKO OSTATUA

Etxalar

Kremazko tututxoak



OSAGAIAK TUTUTXOAK

- Irina
- 175gr. gurina
- Gatza pixka bat
- 25gr. azukre
- Anis txerrotada bat
- 1dl. Ardo txuria

OSAGAIAK PASTEL KREMA

- Esnea
- 3 arraultze gorringe
- Arraultze oso bat
- 40 gr maizena
- 100gr. azukre
- Limoia eta kanela
- Glas azukrea

Irinarekin sumendi bat egiten dugu eta gurina, gatza, azukrea, anisa eta ardo txuria gehitu. Gurta bola bat egin arte lantzen dugu. Ordu erdi batez hozten utzi ondoren olioa mahai ganean jarri eta masa zabaldu. Ondoren irak egin. Tututxoak moldeak hauekin forratu eta olio berria froytu ongi gorritu arte. Eta paper ganean utzi ongi kurja daitezen.

NOLA EGIN PASTEL KREMA

Esnea, limoia eta kanela irakiten jarri eta, bertalde, arraultzeak azukrea eta maizenarekin nahasi. Behin irakin denean aurreko nahasketari esne pixka bat botatzen diogu dena irabiatu eta, azkenik, geratzen den esne gurzia botako da. 2 minutu irakitzeko utzi eta gero baztertu.

Behin tututxoak eta pastel-krema egin ondok pikkanaka-pikkanaka bete.

Andutzeta 15,
ETXALAR
Tfnoa: 948 635 450



KASINO JATETXEA

Lesaka

Limoia eta merenge pastela

OSAGAIAK

- 200gr. masa hautsia
- BETEGARRIAREN TARTAKO
- Kollarekada 1 arto-irin
- Katilukada 1 azukre
- Katilukada 1 ur
- 2 limoien arraspadura
- Limoia baten zukua
- Kollarekada 1 gurin
- 2 arraultze gorringe
- MERENGEAREN TARTAKO
- 3 arraultze-zuringo
- 2 katilukada azukre

Masa hautsia egteko, bol batean gatz pixka batekin katilukada eta erdi irin tamizatu. Katilukada bat gurin dadokotan moztu eta irinarekin polki eta uniformeki nahasi, ogi arraspaturaren testura lortu arte. Geroazalean ura hautsezatu eta espatula batekin oreka egin. Masa, irinarekin hautsezatutako gainazal batera pasatu eta eskuekin landu. 30 minutu reposoan utzi. Gurinarekin molde desmuntagarria koipeztatu eta irinarekin hautsezatu ondoren, masa, ganean zabaldu. Masari zulo bakiak egin eta labean erre 15 minutuz. Gero arto-irina eta azukrea kazola batean nahasi. Hori ura, limoi baten zukua eta azala gehitu eta dena ongi nahasi. Irakiten hasten utzi saltsa lodi bat lortu arte ongi nahasiz. Ondoren sutik baztertu eta gurina gehitu. Pixka bat hozten utzi. Gero, ontzi batean gorringoak irabiatu, bi kollarekada saltsa bota eta dena kazolara gehitu. Su motelean egin loditu arte. Hau pastelaren basera bota eta 15 minutu labean erre. Zuringoak irabiatu a punto de nieve. Hasieran kollarekada bat azukre bota eta gero gelditzen dena. Tarta ganean zabaldu dena estali arte eta merengea gorritzen den arte labean sartu. Pastela hotza edo berria zerbitzatu daiteke.

Plaza Zaharra
LESAKA
Tfnoa: 948 637 287



Ahatekietan adituak
eta arituak

Martikorekin
erraza da
gourmet
ona izatea



Ahate-magret carpaccina mi-cuit txirbilekin

NOLA EGIN

Magretari gurina kendu, eta ahalik eta zerrarik finenetan zatitu. Erretilu batean jarri eta olio-ozpina bota. Mi-cuitari zuritzeko tresnarekin txirbil formak eman; magretaren ganean jarri. Tipulina gaineratik hautsezatu.

OSAGAIAK (4 pertsonentzat)

- Martiko ahate magret
- Martiko ahate foie-gras mi-cuit medaloi bat (90 gr)
- Ozpini-olioa
- Olioa
- Limoia
- Gatza
- Olio-ozpinari ondokoak edo zizak zatituta nahastean ahal zaizkio, edo tipulin zatitua.

DENBORA : 15 minutu
KALORIAK: Gubi



udana
salazones

Departamentoko bukatuak jositua, jositua eta konjelatuak

Rikalaga Ind. • Lesaka • 948 631 536 • Fax: 948 631550



Esarte



Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko janaridendetan

KONGELATUAK: Albondigak, Urdaiazpiko, oillasko, piper eta arraultze kroketak

Jaime Urrutia 35 • 948 58 01 28 • ELIZONDO

ARKUPE
goxotegi • kafetegia

- Tarta bereziak
- Etxeko izozkiak
- Arkupe txokolatea:
kakaotik egindako txokolatea

IRURITA • Tfnoa.: 948 452 021
ELIZONDO • Tfnoa.: 948 452 393



PAGOLA
EMBUTIDOS

artesanos desde

1940

Alzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948.630.054

GOIZUETA

Orentzero eta Mari Domingiri harrera egin zitzaizen

Esteban AROTZENA

Urtetik urtera protagonismo handiagoa hartzen ari da Orentzeroa gure herrian. Hainbat zurrumurruk diotenez, bere bikote laguna den Mari Domingi bidali zuen eskolara ikazkin tripa-haundiak abenduaren 22an. 24ko ilunabarrean berriz, biak batera sartu ziren herrira. Jende multzoak egin ziren harrera, ohorezko auresku eta guzi hartuak izan zirelarik. Ordurako eginak ziren eskolako kurtso ezberdinetako neska-mutikoen arteko lehiaketak.

Arratsaldeko eskean, bestalde, bi talde ibi-

li ziren: eskolako eta presoan aldekoa, hagitx arrakastatsuak biek. Eskea bukatu eta ohiko lekuan jaso zen orentzeroa hurrengo urtera arte. Hantxe egonen da epel-epel bien bitartean, inork ez badu eramaten behintzat.

Pilota gozoarekin ere hoberenak

Goizuetako pilotari profesionalen berri badute Euskal Herri guzian, baina ezezagunagoak izan arren badira gure herrian pilotariak sari garrantzitsuak eskuratzen ari direnak. Hemaniko Kronikak pi-



ARGAZKIA: ENERIZ AROTZENA

Presoen aldeko orentzeroa eskean ibili zen arratsaldean.

lota gozoarekin jokatzeko den txapelketa antolatzen du urtero, eta bigarren urtez segidan Josu Narbartek eta Josu Apezteak jokatu dute finala, bietan Tximista nagusitu delarik. Hirugarren eta laugarren posturako, Xabier Legarreta eta Mikel Ruiz de Galarretak (goizuetarraren semea hau ere) jokatu zuten eta aranoarrak irabazi zuen.



UTZIANO ARGAZKIA

Eguberri inguruan, ekitaldi ezberdinak antolatu dira eskolan, tartean ipuin kontalariak.

ARESO

Eguberriak bi aurpegi erakutsi ditu aurtengoan

Bi guardia zibilek Orentzero lapurtu zuten plazatik

Juana Mari SAIZAR

Abenduaren 24an, gozoa eta garratza bizi izan genituen. Alde batetik, herriko umeak Jaione akordioilariarekin Jesus haurtxoarekin eskean ibili zirengabon kantak kantatzen. Bildu zuten diruarekin, merienda bat egin behar dute eta gelditzen denarekin bi ume behartu apadrinatu behar di-

tuzte 2006an. Herriko jendeak 370 euro eman baitzuten maitasuna, elkartasuna eta behartuarekin bat egitea aldarrikatuz.

Gauetz garrantzitasuna izan zen herriko plaza zaharrean. Han zegoen Orentzeroa eraman baitzuten, eta hainbat lekukok bi Guardia Zibil ikusi zituzten Orentzeroa, bere aulki eta guz-

ti Guardia Zibilek Patrolan sartzen. Mikel Baraibar alkateak, gertaera salatu zuen Vicente Ripa, Espainiako gobernuak Nafarroan duen ordezkariaren aurrean. Honek, gertaera berehala ikertu eta espediente ireki die Guardia Zibilei. Oraindik ez da zehaztu zer nolako zigorra jasoko duten egin zutenagatik.



ARGAZKIA: JUANA MARI

Lapurretaren ondotik plazan berriz jarri zen orentzeroa. Behean, haurrak kantari eskean.

LEITZA

Institutuko atezaina erdalduna dela eta kexu da Guraso Elkartea

Erantzukizuna Hezkuntza Departamentuarena dela adierazu du

ttipi-ttapa

Amazabal Institutuko atezainak baja hartu eta Hezkuntza Departamentuak bidali duen ordezkoa euskalduna ez delako bere kezka agertu du Institutuko Guraso elkarteak. Bigarren aldia da ordezkoren erdalduna bidaltzen dutela eta ordezkapena seguru aski lutzerako izanen dela kontuan hartuz, «*institutuarekin harremana dugun guztioi eskubideak murriztu dizkigute*». Guraso Elkartearen arabera, arrazoa ezaguna da eta, zoritxarrez, ohikoa nafar administrazioan: lanpostuaz jabetzeko ez da nahitaez euskara jakin behar, mehezimendu gisa soilik hartzen da kontuan. Gurasoen ustez, «*ahalegin handia egin da Leitzako ikastetxeetan ere, herrian egin den bezala, euskara bertako lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtu dadin, eta ez da atzera egiten hasteko unea. Gai hau ez da txi-*



ARRAZOIA

Eguberrietako azken ospakizunak

Olentzero, Eguberri eta Urtezaharreko ospakizunen ondotik, Errege egunaren ingurukoak bakarrik gelditzen zaizkigu. Errege bezperan kabalgata egiten da eta aurreko gauean herrian barrena joareak astintzen ibiliko dira gazteak, izpiritu txarrak uxatzeko. Ondotik, gauerdian elkartearen bilduko dira ogia eta zopak jateko.

kikeria bat, jende askoren lana eta izerdia eragin baitu euskara normaltasunez erabiltzera iristeak.

Guraso Elkartek garbi utzi nahi izan du ez duela egokitu den atezainarekiko kexarik ezta ematen duen zer-

bitzuari dela eta deus aipatzekorik, alderantziz, bere lana oso ongi betetzen duela uste dute. «*Araza bat eta bakarra da gure adierazpen hau eragin duena: hizkuntza*». Gurasoen ustez, egoera «*famalgarri*» honen ardura eta

erantzukizuna Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentu-ko arduradunena da, eta haiei dagokie konponbidea lehenbailehen bilatzea. «*Guri dagokiguna da gure eskubideen defentsa egitea, kasu honetan hizkuntza es-*

kubideen defentsa, eta horren ondorioz, eskaera argia egin nahi dugu: Leitzako Amazabal Institutuko atezaina euskalduna izan dadila, institutuko bizitza, oso-osorik, euskaraz egiten jarraitu ahal izan dezagun.



PERTSONAIA

Pakita URKIOLA

36 urtez sukaldari Institutuan

Pakita Urkiola sukaldaria omendu zuen Amazabal Institutuak abenduaren 22an egindako festan. 36 urtez sukaldari izan da eta urte bukaeran jubilazioa hartu zuen. «*Institutua sortu zenetik aritu naiz hemen lanean. Garai batean gosariak ere ematen genituen eta asteburuetan interno gelditzen zirenentzat orduak prestatzen genituen*». Orain makarroiak eta arroza bai, baina barazkiak eta eltzaria jaten ez dakigula azaldu zuen Pakitak.

OZONO-KLINIKA

J. Miguel Itarte doktorea

Tratamentua kirurgiarik gabe

- Hernia diskalak
- Belaun, aldaka, bizkarrezur, zurmioen artrosia, etab...

Merindad de Sangüesa 1, entopa (Multiopticas ondoan)
Tel: 948 126750 - BURLATA



CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio iriarte 33,1º D - 31700
948210963 ruñea - paulino caballero 15,1º A - 31002

luis
cestau
baraibar

arkitekto
teknikoa

leitza
607204485

lucésba
@
msn.com

BAZTAN

Baztandarren Biltzarrak ekitaldi aunitz antolatu ditu urte hasieran

Errepublika eta Gerra Zibilari buruzko solasaldia urtarrilaren 13an

ttipi-itapa

Baztandarren Biltzarrak Elkarteak urte hasierarako kultur agenda mardula aurkeztu du. Baztandarren Biltzarrarekin batera, Baztango Mendigoizaleak, Baztango Gaztetxeak, Jo ala Jo kultur elkarteak eta Erratzuko gazteek antolatu dituzte ekitaldiak. Gan den urte akabailan ere hainbat ekitaldi izan ziren: igande iluntzetan zinema gaztetxean, abenduaren 10ean, Xirika Eguna batukada, kontzertuak eta bertzelako ekitaldiekin. Kontzertuak, mozorro tailerrak, "Birmaniko egunek" izeneko diapositiba emanaldia Eider Zapirainen eskutik, haurrentzako tailerrak, monologoak eta bertze izan dira. Baztan-Bidasoako artisauen azoka ere egin zen Eguberri bezperan Elizondoko plazan, eta arratsaldean olentzero ailegatu zen herrietara.

Urtarrilaren 13an, Errepublika eta Gerra zibilari buruzko solasal-



Armasakoa

Urtarrilean inausketa ikastaroa egingen da Arizkungo Gamiozarrean eta sagardo kupelen irekitzea eta kirikoketa jardunaldiak ere egingen dira. Beraz, urriaren 22an jotako sagarrek nolako sagardoa eman duten dastatzeko modua izanen da.

dia eskainiko du Iker Friasek Arizkunenean, 19:00etan. Urtarrilaren 16tik 27ra inauteei buruzko jardunaldiak egingen dira. Urtarrilaren 21ean, Galtzerdi Suizida ipularen kontaketa eta marrazketa egingen da, Asier Larretxearen ahotik eta Juan Angel

Perotxenaren eskutik. Arizkungo Gamiozarrean, urtarrilaren 28an inausketa ikastaroa egingen da eta sagardo kupelen irekitzea eta kirikoketa jardunaldiak ere egingen dira.

Otsailean, Santa Ageda eskea, kantuafaria, euskararen ahoz-

kotasunari buruzko solasaldia Joxerra Gartzia eta Kike Amunarrizekin eta hainbat ikastaro prestatu dira, bertzeak bertze oinarritzko sukaldaritza, etxeko oinarritzko konponketak edo masaje tailerra. Izen ematea otsailaren 15a baino lehen egin behar da.

FLASH

Gartzaingo trinketea moldatuko da

Gartzaingo trinketea moldatzeko lanak 2006ko aurrekontuetan sartu ditu Udalak, UPNk aurkeztutako mozioa onartu ondotik. Dagoeneko 50.000 euroko aurrekontua duen proiektua bada. Teilatua osorik moldatu eta trinketearen eta eskolaren fatxadak konponduko dira. Bazterreko paretan dauden zuloak estaltzen dituen plastiko beltzaren ordezkurik kristalak jarriko dira. Lan honetarako dirulaguntza ukatu zuten Iruñetik gan den urtean, baina aurreneko berriz eskatuko du Udalak.

Elizondoko hilerriko arduraduna

Hurrengo bi urteetan Elizondoko hilerriaz arduratzeko lanpostua lehiaketara ateratu du herriak. Urteko soldata 3.900 eurokoa izanen da eta 120 euro gehiago lurperatze bakoitzarengatik. Santiago elizako erlojuaren mantenimenduz ere arduratuko da langilea eta horregatik 360 euro gehiago kobratuko ditu. Errege eguneko eguerdian egingen den batzarraren bitartean aurkeztu ahal dira proposamenak.

Carlos Garaihoekzen Etzenike

abokatua

948 581 408
948 580 433
Frantziako iberr. 12
Amatziako 36
ELBETE

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableruak: melaminak, hidro-fugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Industrialdea · Tel: 948 580 645 · IRURITA

MENDIALDE jateketa

AMAIUR • 948 453 060

MENDI ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

Zugarramurdiko Akelarre elkartea zuzendaritza batzorderik gabe

Berria osatzen ez bada desegiteko arriskua dauka

Margari eta Koro

Zugarramurdiko Akelarre Elkarteko Batzordeak abenduan egin zuen bileran, garrantzizko erabaki bat hartu zuen: Zuzendaritza-tik ateratzea. Horren ondok momentu huntan Elkartea bururik gabe dago eta hurrengo pausua bilera bat egitea da, horretan Batzorde berri bat hautatzeko. Estatu-tuek diotenez, Batzorderik osatzen ez bada, Elkartea deseginen da eta dituen ondasun guztiak Udalera pasatuko dire. Beraz, garrantzitsua da gai hau seriozki hartzea. Erran beharra dago ere orain arte egon den Batzordea 1994an osatu zela eta gerotik

ez duela apenas aldaketarik izan.

Hotza eta horma

Abenduaren erdi aldera hasi zen eguraldi hotz ikaragarri harek arazo batzuk sortu zituen bazter hauetan, batez ere errepideetan. Gaineko bentako maldan eta Itzalunen gatza bota behar izan zen, arrixu handia zegoelako (auto pare bat kunitara joan ziren), eta herrietako karrika eta bazter batzuk ere zuri-zuri eginak egon ziren egun aunitzez.

Zaborrak bereizteko urrats berriak

Bertze pausu bat eman



Hormak arazoak sortu zituen Gaineko Bentan eta Itzalunen.

ARGAZKIA: KORO

dugu sortzen ditugun hondakin eta zaborrei behar den bezalako tratamendua ematen ahal izateko. Orain arte kristala zen bereizten ginen bakarra, baina urtamilaren 1etik aitzina erabiltzeko hainbat gisako kontenedoreak jarri dizkigute: kristala, papera, tetrabrika, plastika eta aluminioa bakoitz bere aldetik biltzeko.

Bertzalde, Lurberriko zabortegia itxiko da eta neurri handiko hondakinak Amotzen dagoen zabortegira eraman beharko dira; horrat eraman ahal izateko familia bakoitzari barretel bat emanen zaie. Pirlak ere Amotzen bildu-



Urte berriarekin, gai ezberdinak bereizteko zabortzoriak jarri dira.

ARGAZKIA: KORO

ko dire. Guzti hunen berri emateko Udalak informazioa etxetara igorriko du. Oraindik izanen da seguraski jende franko halako bereizketa egiteko lanik hartu

nahi ez duena, baina azpimarratu behar da lan hau behar-beharrezko dela gure ondoko inguru trixte eta hondatu bat utzi nahi ez badiegu.

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
KIA

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Bahartza, 2 - Akaia industrialdea
LESACA (samera Berdik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

Landibar EGUNERO IREKIA
ZENTRO KOMERTZIALA

300m pertume markarik ezagunenekin,
usain onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

Lur

diskoteka

www.lurelizando.com

OSTIRALERO LUR DJOTAK

09:00 - 00:45

urtarrilak **05** osteguna

SARRERAK



ESKURA EZAZU ZURE BOLETOA SARRERAKIN BATERA
ZOKKETA 3:00etan EGINGO DA

KARIBE

RA
BIDAIA ZOKKETA

8€

+ KOATSUMIZIOA
+ BOLETO

01:00

urtarrilak **07** larunbata

THE BON SCOTT BAND

AC/DC
TRIBUTE BAND

+ BASQUE COUNTRY
PHARAONS

10€

11:30

urtarrilak **14** larunbata

ELURRA

REN BESTA

8€

+ KOATSUMIZIOA

01:00

urtarrilak **21** larunbata

bidebat

+ MUTED

8€

11:30

urtarrilak **28** larunbata

BINGO

bingoa 3:00etan egingo da

8€

+ KOATSUMIZIOA
+ KARTOA

01:00

SARA

Urte berriko zintzur bustitzea urtarrilaren 6an egingen da Herriko Etxean

Urtarrilaren 13an Frantziako mus txapelketa hasiko da edantegian

Laetitia eta Sandrine

Herriko kontseilua- rekin batera, urte berriaren kari, 2006ko urtarrilaren 6an, arratseko 7etan, Sarako Elkarteko bulego eta parte hartzaile guziak gonbidatuak dira Herriko Etxean iraganen den zintzur bustitzera.

Marrazki txapelketa

Eguberriak, turismo bulegoak marrazki txapelketa antolatzen du. Marrazkien gaia eguberri buruz edo olentzerori buruz eginak dira. Marrazkiak ikusten ahal dira turismo bule-

goan. Bakotzak hautatzen ahal du zein den pollitena. Ondotik marrazki hoberenak sarizatuak izanen dira.

Informatika ikastaldia

Abendoaren 13tik 16 arte informatika ikastaldia egingo izan da Herriko Etxean. Deneri idekia zen. Helburua zen informatika ezagutzea, ordinagailua erabilzea. Orotara 25 pertsonen parte hartu dute gehienak erretretatugazteak. Bertalde, parte hartzaileek izena eman dute beste ikastaldi bat egiteko gehiengo ikasteko.



URTARRILAREN 13AN

Errugbi taldearen esker ona Michel Goyenetcheri

Joan den abenduaren 18an Sarako Izarra taldeak jokatu du Kanbon aurka. Emaitzak hauek dira: erreserbak irabazi du 12-10 bainan lehen taldeak galdu egin du 20-6. Partidaren ondotik gonbidatuak izan dira La Nuba edantegira, baliatu dute argazki bat ateratzeko Michel Goyenetcheri eskertzeko, gal-tza motzak eta galzerdiak eskaintzea gatik. Urtarrilaren 8an arituko dira St. Martin de Seignanx-en aurka kanpoan.

Mus txapelketa Herriko Etxeko edantegian

Frantziako 44. mus txapelketako kanporaketak hasiko dira urtarrilaren 13an Herriko Etxeko Edantegian. Lau astez iraunen duen lehiaketa huntan parte hartzeko 10 euro be-

harko da pagatu izenak ematen ahal dira Herriko Etxeko Edantegian urtarrilaren 3tik 8a arte. Finalak jokatuko dira Pazko astelehenez Donapaleun.

Mus txapelketa Omordian

Jakinazten dute urta-

rrilaren 21ean iraganen dela Omordian salan Mus txapelketa arratsaldeko 2etatik goiti. Izenak eman behar dira urtarrilaren 14a aintzin zenbaki honetara 06.13.58.15.51 edo 05.59.54.27.75.

Eta ahantzi gabe, Urte Berri on deneri!



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrek S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Julio Garcia Retegi eta Cristina Alicia Hengemhüle, Bera eta Argentinakoa, abenduaren 10ean.
Ibon Antolin Agirre eta Lourdes Hernandez Herreria, Astigarragakoak Iturenen, abenduaren 17an.



SORTZEAK

Maialen Karrikaburu Jaimerena, Elbetekoa, abenduaren 15ean.
Paula Adin Bidegain, Arizkungoa, abenduaren 15ean.
Unax Eraso Etxenike, Iruritakoa, abenduaren 19an.
Iñigo Errandonea Otxoa de Zabalegi, Berakoa, azaroaren 23an.
Iker Zelaleta Lazkano, Berakoa, abenduaren 7an.
Ziortza Goia Mitxelena, Berakoa, abenduaren 10ean.
Eneko Loiarte Olartzabal, Berakoa, abenduaren 16an.
Mikel Uhartemendia Eltzaurdia, Berakoa, abenduaren 17an.
Amaia Prieto Etxarte, Berakoa, abenduaren 18an.
Maddi Nabaridas Cuesta, Berakoa, abenduaren 24an.
Ibon Urrusolo Elgorriaga, Lesakakoa, abenduaren 12an.
Aimar Aginagalde Iparragirre, Etxalarakoa, azaroaren 24an.
Oihana Willson Lasarte, Leitzakoa, abenduaren 10ean.



HERIOTZAK

François Etxegarai, Sarakoa, abenduaren 66 urte.
François Goienetxe, Sarakoa, abenduaren 83 urte.
Maria Rosa Santxotena Bidegain, Arizkungoa, abenduaren 17an, 87 urte.
Prudencio Larrea Pascal, Elizondoa, abenduaren 18an, 86 urte.
Josefa Ruiz Saenz, Elizondoa, abenduaren 20an, 93 urte.
Felisa Bayonés Gamietea, Arizkungoa, abenduaren 21ean, 95 urte.
Juan Alsua Telletxea, Goizuetakoa, abenduaren 10ean, 67 urte.
Antonio Rodríguez Portero, Berakoa, abenduaren 13an, 85 urte.
Gervasio Altzuri Maiz, Arantzakoa, abenduaren 20an, 71 urte.
Dionisio Hualde Irigoien, Elizondokoa, abenduaren 20an, 71 urte.
Kandido Azpiroz Zabaleta, Leitzakoa, abenduaren 25ean, 77 urte.
Jose Ramon Goienetxe Galarregi, Etxalarakoa, abenduaren 26an, 75 urte.
Antonio Maia Bergara, Lesakakoa, abenduaren 27an, 86 urte.
Mikel Jauregi, Etxalarren, abenduaren 26an, 43 urte.



Petra ETXEGARAI ETXART

I. URTEMUGA (Arraioz 2005/1/10)

Gure amaxi Petraren horrenbertze oroitzapen behar genuen txoko guztitan agertzen bait zinen galdu zintugun behin haten baina ez zaitugu ahazten gure bihotz barnean amaxi beti bait zara egonen.

ZURE FAMILIA

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58

• 2005. urte borobila osatu zuen Xabi Zozaiak palista lesakarrak. Martxoan Arabako opena irabazi zuen, apiriluan GRAVN torneoak eta Espainiako txapelketa irabazi zituen, urrian Europako txapelketa eta azaroan Kubako La Habanan jokatuak Copa Internacional Capital San Luis lehiaketa. Abenduaren 18an Nafarroako txapelketa ere irabazi zuen Txikirekin batera, Tafallako Murillo eta Muruzabalaren kontra.

• 17 urterekin hasi zen palan Lesakan. Goi mailako kirolarientzako Larrabide erresidentzian izan zen zortzi urtez, Rafa Maritxalar eta Antonio Bru korrikalariekin, bertzeak bertze. Industriako Ingeniaritza Teknikoko ikasketak eta pilota uztartu zituen eta ikasketak akaututa lanean hasi zen Iruñean.

Aitor AROTZENA

Pala motzarekin Nafarroa, Espainia eta Europako txapelketak irabazi zituen iaz Xabi Zozaiak

Oberenako aurrelari lesakarrak. Horiekin batera, bertze hainbertze txapelketa, lehiaketa eta sari titikiagoak ere irabazi ditu. Urte bikaina izanagatik, bertze urte batzuk ere gisakoak egin dituela aipatu digu Zozaiak, «baina ez dugu oihartzunik izaten telebistan eta prentsan». Herrian bai, omenaldia eskaini zion Batzoki elkarteak, paleta goma txapelketaren sari banaketan.

2002an, Munduko txapelketa ere irabazi zuen Iruñean. Baina palmares hori izanda, kirolari ezezaguna da publikoarentzat. «Profesionalki bakarrik Bilbon aritzen da palan—dio Zozaiak—, eta pala luzearekin bakarrik. Pala motzarekin afizionatuetan bakarrik ari gara». Profesionaletan aritzeko aukera erabat baztertua dauka 29 urteko lesakarrak. «Aldi batetik salto kozkorra dago pala motzetik luzera eta bertetik ez du konpentsatzen: aldiro autopista hartu eta Bilbora joan, gasolina ordaindu eta han gero eta guttiago kobratzen da. Nik nere lana daukat eta pala ogibide baino gehiago afizioa da ne-

retzat». 1980. hamarkadan aldi berean profesoaletan ari ziren lau palista zeuden Lesakan, baina horrelakoak nekez ikusiko dira beriz ere. Erremonte, zesta punta eta, batez ere, esku pilotarekin konparatuz, hagitx bakan agertzen dira pala partidak telebistan eta bertze komunikabideetan, eta horrela zaila da kirol honi bultzada ematea.

Joan den urtean, San Fermin Txikiton azpitxapeladun izan bazen ere, horixe da palista honi gehien gustatzen zaion lehiaketa: «2004an irabazi egin nuen eta giro haundia izaten da. Espainiako txapelketa ere hor dago, Arabako Opena. Ahalik eta bikoterik onenak eta parekatuenak egiten dituzte eta hor irabaztea zaila da. Denek badute berea».

«MEXIKOKO MUNDUKO TXAPELKETARAKO ABIOIAN SARTZEKO LEHIAN ARI NAIZ»

Pala motzarekin ari direnentsat, Munduko Txapelketa da lehiaketarik handiena. 2002an, ordezkotari izanik, partida bat jokatu zuen eta txapeladun izan zen Zozaiak Iruñean eta aurten Mexikon egiten den txapelketan sartzeko gogoz dago. «Bortz aurrelari ari gara abioia hartzeko lehian. Gauza zaila dago, baina horretan saiatuko naiz». Ez da palan aritzeko hegazkina hartzen duen lehenbiziko aldia izanen. Azkeneko sei urteotan, Kubako La Habanan jokatu den Capital San Luis Nazioarteko Lehiaketan aritu da Oberenarekin. Aurten, Kubako Kirol Olinpiada ere jokatu da udaberrian eta joateko itxaropena badu. Horrelako lehiaketetan nazioarteko maila ikusteko modua izaten du: «Gaurko egunean mexikarrak dira indartsuenak, Kuban gazte batzuk gelditu dira, baina onentsuenak honat etorri baitziren profesoaletarak».

Xabier ZOZAI *Lesakako palista*

Nafarroa, Espainia eta Europako txapelketak irabazi ditu pala motzean

ARETO-FUTBOLA

Lesakako Haizegoa Ostatuak irabazi du Baztan-Bidasoako XIII. futbito txapelketa

Bigarren mailan, Berako Baietz Peña izanen da txapelduna

A.A.

Baztan-Bidasoako 13. futbito txapelketa ia erabat erabakia dago. Lehen mailan zortzigarren eta azken jardunaldia jokatu zuten Donezteben abenduaren 18an. Lehia estua zegoen, bai txapeldunak erabakitzeke, baita jautsiera postuak saihesteko ere. Goitiko postuean, hamabina punturekin berdinak zeuden sailkapenean Haizegoa, Irurita eta Aise. Arraiozek, hamar punturekin, txapelketa irabazteko aukeraren bat bazuen, Haizegoaren kontrako partida irabazi eta Irurita eta Aisek ere gaitzen bazuten. Halere, Irurita eta Aisek, teoriarik partidak irabaziz gabe eta dagoeneko bigarren mailara jautsiak zeuden Goizalde eta Juanma Jardinen kontra. Titi Ostatuak eta Kortarixarrek, azkenik, hirugarren jautsiera postua saihestea zuten jokoan elkarren arteko partidaren.

Irurita ongi bete zuten bere lana eta 7 eta 1 irabazi zion Goizalde Ostatuari. Emaizta horrek irabaztera behar zuten Haizegoa eta Aise, txapeldun izan nahi bazuten. Haizegoak gol bakarrek abantailarekin irabaztea aski zuten Irurita gaitzeko, baina partidari zailena zuten, laugarren postuan zegoen Arraio-



2003an bezala, 2005ean ere txapeldun izan da Lesakako Haizegoa Ostatuak.

1. MAILA	J	I	B	G	GA	GK	Punt.
1. HAIZEGOA OSTATUA	7	5	0	2	22	13	15
2. IRURITA	7	5	0	2	22	14	15
3. AISE TALDEA	7	4	0	3	18	16	12
4. TITI OSTATUA	7	3	2	2	16	17	11
5. ARRAIOZ	7	3	1	3	24	19	10
6. KORTARIXAR	7	3	0	4	20	20	9
7. JUANMA JARDIN	7	1	3	3	23	25	6
8. GOIZALDE OSTATUA	7	0	2	5	19	39	2

2. MAILA (8. jard.)	J	I	B	G	GA	GK	Punt.
1. BAIETZ PEÑA	7	7	0	0	48	18	21
2. NARBARTU	7	5	1	1	35	22	16
3. SASOI EKABAZIOAK	7	4	2	1	38	19	11
4. XANPALE	7	3	1	3	28	17	10
5. MENDI TXURI	8	3	1	4	34	47	10
6. EZKURRA	7	3	0	4	20	32	9
7. ORDOKI LIKOREAK	7	2	1	4	23	21	7
8. ZUBIETA	7	2	0	5	27	42	6
9. ULIBELTZA	7	0	0	7	11	44	0

zen kontra. Halere, azkenean 1-0 irabaztea lortu zuen eta honela Irurita gaitzitu zuen. Arratsaldeko azken partidaren, Aisek bakarrik zuten Haizegoa gaitzitzeko aukera. Horretarako, bortz goleko aldearekin irabazi behar zion partidurik irabazi gabe zegoen Juanma Jardineri. Horrek, estutu egin zituen, nonbait,

Aisekoak eta azkenean, Juanma Jardinek liga bere lehen partida irabazi zuen, 3 eta 1. Gauzak honela, Haizegoa gelditu zen txapeldun, 15 punturekin, 22 gol alde eta 13 kontra zituela. Puntu kopuru berdinekin, aldeko gol kopuru berdinarekin eta kontrako gol bat gehiago jasota bigarren Irurita sailkatu zen. Hiruga-

rrena Aise izan da. Dena den, goitiko postuez gain, jautsiera-ko azken postua erabakitzeke partida aski interesgarria jokatu zuten Titi Ostatuak eta Kortarixarrek. Kortarixarrek puntu bat aitzinetik zeuden, baina Titikoek 4 eta 2 irabazi zuten, sailkapenean bi postu aitzinera egin zuten, Kortarixar eta

Arraioz gaitzitu. Honela, laugarren izan dira Titikoak, bosgarren Arraioz, eta jautsiera postuetan, seigarren Kortarixar, zazpigarren Juanma Jardin eta zortzigarren Goizalde Ostatuak sailkatu dira. Harrigarriena, Juanma Jardinen jautsiera izan da, iaz txapeldun izan zirela kontuan hartuta.

Bigarren mailan Baietz irabazle

Bigarren mailan ez da horrelako emozio izanen. Urtarrilaren 8an jokatu da azken jardunaldia, baina abenduaren 18an Sunbillan, lehendik ere nahiko argi zegoen sailkapena, erabat argitu zen. Faboritoek ez zuten hutsik egin, eta dagoeneko, badakigu lehen mailara igoko diren hiru taldeen izenak: Berako Baietz Peña, Narbarte eta Sasoi Eskabazioak.

Baietz Peñak jokatuako zazpi partidak irabazi ditu eta txapeldun izanen da bigarren mailan. NARBARTEK Legasako Xanpaleri irabazi zion Bertizaranako derbian eta bigarren postuan dago 16 punturekin. Sasoi Ordoki Likoreak taldeari irabazi eta hirugarren postua segurtatu zuen, 14 punturekin. Legasako Xanpale laugarren dago 10 punturekin, beraz, azken jardunaldia irabazita ere, ez du postua hobetzeko aukerarik.

AGENDA

egunez egun

ZINEMA

LEITZA

Urtarrilaren 6, 7 eta 8an «Aupa Etxebeste!» filma eskainiko da zineman. Urtarrilaren 13an eta 15ean «Obaba» filma eskainiko da zineman.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Abenduaren 2tik urtarrilaren 8a arte Joxe Erregerena eta Juan Lameriñas-en argazki erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, 18:00etatik 21:00etara. Inaugurazioa abenduaren 2an 19:00etan.

BERA

Urtarrilaren 23tik 29ra Andersenek idatzitako ipuinetan oinarritutako erakusketa liburulegian, asteleheneetik ortziratera 15:00etatik 21:00etara.

ARIZKUN

Urtarrilaren 7an eta 8an Munduko Jaiotzen erakusketa Gorrienea Museoa. Goizez.

SOLASALDIAK

BERA

Urtarrilaren 10ean «Ongizate eta erlazazio teknikak» solasaldia eskainiko du gaztelerez. Marixabel Kerejetak 17:30etan Kultur Etxean.

ELIZONDO

Urtarrilaren 13an «Errepublikan eta Gerra Zibila» solasaldia eskainiko du Iker Friasek Arizkunenean 19:00etan.

LESANA

Urtarrilaren 12an «Gure seme-alaben sexualitate eta afektibitatea» hitzaldi-talerra eskainiko du Marta Aristuk Irain ikastetxean 17:00etan. Irain Guraso Elkarteak antolatua.

TELEBISTAKO TXOKOA



URTE BERRIARI EGIN DIO TELEBISTAK

Herrietako Errege Kabalgatak ikusgai ttipi-ttapan


Urte berriari ekin dio ttipi-ttapa telebistak. Aldaketa handiegirik ez da izanen programazioan, baina Eguberrietako ospakizunak akitzeko Errege Kabalgatak izanen dira eskualdeko herri gehienetan eta batzuen berri emanen du ttipi-ttapa telebistak heldu den asteleheneko, urtarrilaren 9ko albistegian. Beran, ortzegun arratsaldeko 15:30etan ibiliko dira Erregeen pajeak herriko karraketan barna gutunak biltzen. 18:30etan Errege Kabalgata eginen da Itzea auzotik Herriko Etxeko plazara. Lesakan, 17:00etan izanen da karteroa plazan eta 18:00etan hasiko da Kabalgata Irain eskolatik. Albistur,

erresidentzia, Antoiu eta Bittirian barna ibili ondotik, frontoian eginen da Jaiotza. Arantzan, ilunabarreko mezaren ondotik eta elizan Meltxor, Gaspar eta Baltaxarrek opariak banatuko dituzte haur eta gaztekoentzat. Igantzin, Sunbillan, Donezteben eta inguruko bertze zenbait herrietan ere eginen dira kabalgatak.

BORTZIRIETAKO TALDEKAKO 8. BERTSO LEHIAKETA

Urtarrilaren 13 eta 14an Bortzirietako bertso-eskolaren taldekako 8. lehiaketa eginen da. 24 bertsolarik parte hartuko dute eta horren berri emanen da ttipi-ttapa TBn.

CD+DVD



«1972-2005 zuzenean»

AKELARRE

ELKAR, 2005

2005eko urtarrilaren 21ean, 33 urteko karre-ra sendo eta mamitsua- ren ondotik, milaka zuzeneko emanaldiz jor- ratutako urrezko ibilbi- dea eta gero, Akelarre taldeak bere azken kontzertua eskaini zuen Oialumen. Bizitza luze honetan taldekide izanda- ko musikari ezberdinak batuz, sekulako bukara- besta antolatu zen. 1970eko hamarkadaren hasieran Soraluze inguru- ruko Los Mansos talde- ak izena aldatzea era- baki eta Akelarre auka- ratu zuen. Garai zail haie- tan euskara hutsez abes- tutako erreperitorio alai eta erakargarria eskain- tzen zuen taldeak. Eus- kal nortasun herrikoia eta rockaren jarrera su- tsua nahasten asmatu duen taldea dugu Ake- larre. Taldearen azken kontzertuaren soinua zein irudiak zuzenean grabatu ziren eta hona- ko bilduma honetan di- tuzu.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Abenduaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 37,50 € (+2,00)

Zerri gizona
1,055 € kiloa. (+0,045)

Zerramak:
0,450 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,69 (=)

1.koa 3,45 (=)
2.koa 3,33 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,79 (=)
1.koa 3,58 (=)
2.koa 3,40 (=)

Oharra: Prezioak 180-220
Kg. kanalean pisatzen du-
ten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 246,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 175,00 (=)
idixkoak 220,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberiak: 2,95/3,01
Zaldi-behorak: 1,57/1,87
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,20/8,40
8-10 kilokoak: 6,50/7,10

JAKIN BEHARREKOAK

Gurasoak, seme-alabak eta Internet

Arriskuak saihesteko gida eman du Nafarroako Arartekoak

Ttikienek Internet sairean aurki ditzaketen arriskuak saihesteko eta horri buruz gurasoei informazioa emateko gida karrikaratu du Nafarroako Arartekoak.

Gurasoek jakin behar dute Internet bidez seme-alabak harreman eta ezagutza mundu berri batean sartzen direla. Internetek dituen abantailak ukaezinak dira, baina gurasoek ez dugu ahan-tzi behar:

- Haurren %41a eduki ez egokietara ailegatzen dira, bila joan gabe.
- Ttikien %25ak datu pertsonalak ematen ditu inozoki Internet bidez.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen %15,5 eta DBHko %47,5 txate-

tan sexualki erasotuak sentitu dira.

• Adinez txiki direnen %10a Internet bidez ezagututako pertsonekin itsu-itsuan egindako hitzorduetara joan da.

Internet ezagutzen eta erabiltzen saiatu behar duzu, beraiekin konpartitzeko. Baina hau posible ez bada, bertzela ere erabiltzen dituzun oinarri eta jarrerak Interneteko ere baliagarriak direla gogoratu:

- Internet erabiltzeko arrazoizko arau eta denborak ezarri.
- Interneteko espezializatu buruz etengabe solastu seme-alabekin.
- Ezezagunekin ez solastea eta gune arriskutsuak saihestea gomendatu.



Datu pertsonalak ez ditu eman behar haurrak.

• Balizko zitak kontrolatu eta ezezagunek harremanetan jartzeko saiakeri buruz informatzea eskatu.

• Pertsona edo zerbitzu ezezaguneri argazkiak eta bere datu pertsonalak ez di-tuela eman behar orotarazi.

• Solasaldi eta eztabaida erasokor, mehatxugarri edo lizunetan ez parte hartzea aholkatu zure seme-alabei.

Dagoeneko Interneten erabiltzailea bazara, zure esperientzia erabili. Seme-alabak laguntzeko eta babesteko modurik egokiena da, aholku batzuk segituz:

- Beraien gustotara egokitzen diren guneak bilatzen lagundu.

• Pertsona edo zerbitzu ezezagunekin aritzeko doaneko posta kontuak erabiltzeko eta bere zerbitzarien kontu pertsonala ez emateko erran.

• Haurrarentzat erabiltzaile kontu berria sortu eta hala uste bazu, ttikientzat eduki ez egokien filtro bat instalatu. Ez badakizu nola egin, www.navegacionsegura.es edo www.internetsegura.net orriak bisitatu. Dena den, filtro hauek ez dira perfektuak eta ezin dute ttikienekin egin beharreko hezkuntza lana ordezkatu.

Haurren pornografia duen orriren batekin topo eginez gero, www.protegeles.com orrian salaketa anonimoa egiten ahal da.

AGENDA egunez egun

BILERAK

IGANTZI

Urtarrilaren 10ean Bortzrietako hirigintzari buruzko bilera antolatu du Bortzrietako Agenda 21ek Bittoki elkartearen 19:30etan.

ERREGE KABALGATAK

BERA

Urtarrilaren 5ean 15:30etan Erregearen pajeak herriko karraketan ibiliko dira gutunak biltzen. 18:30etan Errege Kabalgata egiten da Itzea auzotik Herriko Etxeko plazara.

LESAKA

Urtarrilaren 5ean 17:00etan karteroa plazan. 18:00etan Errege Kabalgata. Ibilbidea: Irain, Albistur, Erresidentzia, Antoiu, Bittiria eta frontoian jaiotza.

BERTSOAK

BERA-LESAKA

Urtarrilaren 14an Bertso-Maratona: Bortzrietako Bertso Eskolaren Taldekako Lehiaketa. Kanporaketak eguerdik aitzinera Beran eta finala Lesakako Lintdurren bordan egiten den afariaren ondoren. Antolatzailea: Bortzrietako Bertso Eskola.

KONTZERTUAK

ELIZONDU

Urtarrilaren 7an «The Bon Scott Band» eta «Basque Country Pharaons» taldeen kontzertua Lur dantzalekuan, 23:30etatik aitzinera

JARDUNALDIAK

ELIZONDU

Urtarrilaren 16tik 27ra ikaitel buruzko jardunaldiak antolatu ditu Baztandarren Biltzarra.

LIBURUAK



Vredaman

Unai ELORRIAGA

ELKAR, 2005

Aurreko bere bi liburu arrakastatsuen ondoren (Sprako tranbia eta Van't Hoffen ilea), nobela berri batekin dator Unai Elorriaga: Vredaman. Aita ospitalean gaixo eta ama hura zaintzen dauzkalako osabazkoen etxera bidaltzen duten haurra; golf-klub baten barruan errugbi-zelai klandestino bat margoitu nahi duten bi lagun; urtetan arkitekto baten andregai izan baina inoiz ezkondu ez zen emakume adindua; aitte gizon inportantea

zela jakin eta haren arrastoa-ren atzetik dabilen gaztea. Elkarrekin nahasten diren istorioak daude liburuan, pertsonaia ameslari, xelebre edo maltagarriak beteak, bakoitza bere estilo berezian kontatua: haurren sinpletasun magikoa, atso-agureen berritsukeria paxadatsua, alprojen elkarrizketa zoroak... Liburuaren izena, beste liburu bateko pertsonaia den Vredaman eta Vredaman de Brie pertsonaia historikoaren arteko nahasketa da.

LANA

302 Eskaintzak

IRUÑA. Neska euskalduna behar da arratsaldean lau orduz bi ume zaintzeko, urtarrietik aurrera. ☎ 948 272255 edo 654 507364.

DONEZTEBE. Amezia jabetxean kamareroa edo sukaldarian lanean aritzeko pertsona bat behar da. Baldintza onak. ☎ 617 333015.

ELIZONDO. Bi haur zaintzeko pertsona bat behar da. Betatik 10etara eta 18etarik 20etara (ezin bada atsaldetik goizez). ☎ 948 581341 edo 679 613201.

BERA. Jabetxe batean sukaldarian eta ostatuan lanean egiteko jendea behar da. ☎ 654 385363.

ETXALAR. Etxalarko Benta hoteleko harreraren asteburuetan lanean egiteko pertsona bat behar da. ☎ 609 402229.

DONEZTEBE. Irizti ostatuan langilea behar da, orotz eta larunbeteetan lanean egiteko. ☎ 948 450383.

Haurzaindaria. hezitzaileak. Haur eskoletan abudo sartzeko. ☎ 948 199596.

Gidariak, txoferrak. Abudo sartzeko Nafarroako Diputazioan. Kontratu mugagabea. ☎ 948 199596.

Laborategia. Ospital eta Na-

TALLERES SANTESTEBAN
☎ 948 450282 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-10 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO,
MEGANÉ, LAGUNA, LAGUNA
GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN,
MEGANÉ GRAND TOUR.

ERA GUZTIETAKO
ERREMOLKEAK

EHZARAKO, MOTOAK, ZALDUAK
ETA QUAD-AK, GARRAIATZEKO...
ZURE NEURURIA
EGINDAKO ERREMOLKEAK

farroako Gobernurako lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Ohar garrantzitsua. Elbarritasun fisikoaren bat baldin baduzu, lortu lanpostu finko bat. %5a emeserbatua. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Sukalde laguntzailea. Sukaldariak, kamareroak. Lanpostu finkoak. Ordutegia: Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Peoiak: igeltseroak, elektrizistak, iturginak eraikin publikoen mantenimendurako. Asteleheneetik ortziralerara, Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Langileak. Obrak, gidariak, zaborrak, garbitasuna. Udaberretarako behar dira. ☎ 948 199596.

Premiazkoa. Haur zaind-

SAMPI ARAGON

ZOANSA

Suz. Itza 50i, Suz. Itza TDI, Suz. Leon TDI, Peugeot 206, Opel Corsa, Mitsubishi Montero 3.0, VW Golf IV, Citroen Xsara Picasso, Citroen ZX TD, Peugeot 306 TD, Ford Fiesta, Hyundai Getz

TEL: 948 450333 • DONEZTEBE, BIA

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Mitsubishi DD 1.1 litro. Yaris 1.1 litro TD, Opel Astra, Maverick, Golf 3.0 litro, Grand Vitara 3.0 litro, Citroen Evolun, Peugeot Partner, Opel Zafira eta Opel Agila SUZUKIAK ETA VITARA AK AUKERAN

riak eta haur eskoletarako hezitzaileak behar dira. ☎ 948 199596.

Correas. Bete behar dira: banaketarako, sailkatzeko eta bezeroari arretarako langileak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Haurzaindegiak: Bete behar dute haur zaindaria eta hezitzaile lanpostuak. Ordutegi intentsiboa. ☎ 948 199596.

MOTORRA

501 Salerosketak

Volkswagen Golf 1.9 TDI autoa salgai, 90 zaldikoa. 1995. urtekoa. Bost ate. ☎ 948 510587 edo 646 003662.

Aixan 400 karnetik gabe erabiltzeko autoa salgai. Egoera oso onean. 5.500 euro. ☎ 654 712900.



BORTZIRIETAKO

EUSKARA

MANKOMUNITATEAK

BEHAR DITU:

BAI EUSKARARI AKORDIOA GAUZATZEKO BI TEKNIKARI

BETE BEHARREKOAK:

- Formakuntza akademikoa: Babilergoa edo Goi Mailako Lanbide Heziketa
- Euskaraz jakitea (hitza egiteko eta idazteko gaitasuna izateko)
- Gida-baimena eta kotxea edukitzea

ESKAITZEN DA:

- Bi hilabete inguruko lan kontratua, lanaldi erdikoak, urtarrietan 23an hasita.
- Administrazioako C mailari dagokion soldata.

ESKAERAK:

- Eskakerak urtarrietan 12ko 12.00ak baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.
- Aurkeztu behar den dokumentazioa eta gainerako xehetasun guztiak deialdian irakur daitezke. Deialdia eskuratzeko deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.

Arantzan, 2005eko abenduaren 22an
Mankomunitateko lehendakaria, Vicente Arotzena Buirrarena.

Informazioa Bortzirieta Euskara Mankomunitatean:
Telefonoa: 948634125, e-posta: bortzirak@euskalnet.net
Helbidea: Herriko Plaza 7, 31790 ARANTZA

B o r t z
I r i e T a n



Peugeot scooter motoa, 50 cckoa salgai. Egoera onean. ☎ 660 991583.

Citroen ZX autoa salgai, N-AM matrikuladuna. Arras egoera onean. ☎ 680 343337.

ANIMALIAK

601 Emateko

Bost xakur kume hagitza poltik oparitzen dira. ☎ 637 390197.

Renault Laguna autoa salgai. 71.000 km, lau airbag eta klimatizadorearekin. ☎ 639 125046.

DENETARIK

702 Salerosketak

Yamaha pianoa salgai. Hagitza gutti erabilia. ☎ 686 437953.

MaxiCoxia salgai, Bebe Comfort Creative markakoa. Estreinatua gabea. Dendan baino merkeago salduko genduko. ☎ 676 789286.



Bidali ttipi-ttapa
herritik kanpo bizi diren
lagun edo familiakoei

☎ (+34) 948 635458

Argazki soilak: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,28€ ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 € ko trekeak. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.info



Arantza **NOBEIA** eta Donatzebeiko **ANEK** 5 urte bete dituzte abenduaren 25ean. Auniz urtez eta 5 muzu bakoitzarentzat, bereziki Mikeo eta Sararen partetik eta familiaren partetik. Sorgin pareak, poltik eta bereziki zarent. Ana.



Oronoko **KIRIKO OTEIZA UGARTZ** urtarilaren 18an 45 urte beteiko ditu. Zorionak Josu eta Maialen seme-alaben eta Juana M^a emaztearen partetik.



Jose Antonio **MAIA** lesakam urteak bete ditu abenduaren 19an. Auniz urtez Itxarretako bazpeletan!



Etxalarako **AIHODA TELLE** eta **ITXARRE** abenduaren 24an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muzu auniz familiaren partetik.



Garazi **SANTESTEBAN OYANGORENA** zubietarrak 2 urte bete ditu abenduaren 15an. Zorionak eta muzu asko Esther eta familiaren partetik.



Arda **MARTIN** Alduntzin beratarak 4 urte egin ditu abenduaren 27an. Zorionak eta muzu asko aituna, amona eta osaba Itxarinen partetik.



Donatzebeiko **INANDI DE RUESA GORRI** 9 urte beteiko ditu urtarilaren 4an. Zorionak eta 9 muzu gure kizilariari, aita, ama eta Andrearen partetik.



JAVIER PIKASERRA MOLINERO eta **EIDER MOLINERO BARRETO** beratarak 11 eta 3 urte beteiko dituzte urtarilaren 29an eta urtarilaren 18an. Auniz urtez eta zorionak familia guztiaren partetik. Auniz urtez, baita Eideren aitari ere.



Jexuk **GOLA** beratarak 47 urte bete ditu abenduaren 26an. Auniz urtez lagunien partetik. Ez sobera apurrit!



Inaxio **INAXIO** beratarak 52 urte bete ditu abenduaren 28an. Auniz urtez ehiztaria, lagunien partetik.



Leitzako **ITXARO ZOSTAU GOGORTZAK** 6. beltzaren 7an 2 urte beteiko ditu. Zorionak zure famili guztia- ren partetik.



Ekaitz **MUTERRIA GASTE** 2 urte beteiko ditu urtarilaren 18an. Zorionak aita, ama, amona Karmen eta izeba Bakartoren partetik.



Zubietako **NAIRARA ANSOK** 3 urte beteiko ditu urtarilaren 10ean. 3 muzu poltik. Zorionak aita, ama, Ana, atabai eta arriatzen partetik.



Motes felicitats **GORE!** dagonoko 28 urte, ke for! Muzu auniz Aurtzik Barzelonara.



Zorionak **ARANTXANTXAN!** ongi-ongi pasatu zure eguna, muzu auniz Kapena ta Matxapiki Joseperena.




Berako **BANESA SAN JUAN BAKERIK** 22 urte beteiko ditu urtarilaren 20an. Zorionak eta muzu pilo bat zure alaba Nahia eta Ase- ren partetik.



Abenduaren 19, 22 eta 31n Berako **ENERITZAK**, Donamariako **KENNETZAK**, Berako **MANEK** eta Lesakako **ANDER** urteak bete dituzte. Zorionak «Txiripolautakoz», familia guztia- ren partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,28 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:



ttipi-ttapa

Andutzeta, 12

31760 ETXALAR

Urtebetetzeko argazkiak

Internet-en ere

www.ttipi.info

betiko
P.V.C eta aluminio aroztégia

Ordoki Industrialdea, 31713 Arizkun (Nafarroa)
Tfnoa: 948 453 259 - Faxa: 948 453 423
e-posta: betikopvc@teletel.es

Estalpe Etxiak



**PVC eta ALUMINIOarekin
lan egiten dugu**



Betikon era guztietako
itxierak egiten ditugu
kolore desberdinetan:
haritza
piñua
kaoba

Pertsianak



**Fabrikanteak
garenez
preziorik
onenak
eskaintzen
ditugu**



Leihoak eta
kontraleihoak



Kolorezko
kontraleihoak




**ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE • 948 453 259 telefonoan
edo bisitatu gure erakusketa**

Liderrak gure eskualdean

eta bigarrenak
Nafarroa Garaiko Mendialdean
dauden 111 udalerriak kontuan hartuta



IRAKURLE KOPURUAK



SEXUAREN ARABERA

gizonak (9000)
emakumeak (8000)



ADINAREN ARABERA

14-20 46-55
21-25 56-65
26-35 >65
36-45



IKASKETA MAILAREN ARABERA

Lehen ikasketak
Lanbide Heziketa
Batxilergoa
Unibertsitatea



DATU
ITURRIA:

CIES 2005
2. azterketa aldia